

# t tipi t tapa

2009ko urtarrilaren 22a • XXIX. urtea  
www.ttipi.net

486



**Ttipi-Ttapa Telebistaren  
jarduna geldituko da**

**03**


Momentuko egoera larria eta etorkizuneko aurreikuspen ekonomiko eta legal kezkarriak kontuan hartuz, telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n gelditzea erabakiduko Ttipi-Ttapa Fundazioak.



**Amaiurko mutilak  
Euskal Herriko txapeldun**

**40**

Euskal Herriko Lauko Sokatira Txapelketa irabazi du Amaiurko mutilen taldeak. 4. postu bat ere lortu du bigarren taldeak. Nesketan, 3. izan da eta Beti Gaztekoak 4. eta 5.



**04**

## Eskaintzak bai baina eroslerik ez

ETXEBIZITZAK SALDU EZINIK, ERRENTAN JARTZEA  
ERABAKI DUTE HAINBATEK



# ORDOKI

altzariak

Estilo ugariko  
mobleak



ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Ziharra 27 • 948 63 77 80 • LESAKA

## TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

ZURE LAGUNTZA

# BEHAR DU

### Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

**Proiektu zenbakia: 15.996**

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder izanen duzu opari.

✕ geure bezeroek ✕  
aukeratutako **can**  
✕+ proiektua



Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

- Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa
- Kutxazain automatiko berrietan
- Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik
- Bestela, bete ezazu argitara emanen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegia, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.





# Ttipi-Ttapa Telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n geldituko da

J. IRIGOIEN

Momentuko egoera eta etorkizunera begira dauden aurreikuspen ekonomiko eta legal kezkarriak kontuan hartuz, telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n gelditzea erabaki du Ttipi-Ttapa Fundazioak. Ez da erraza izan. Buelta dezente eman ondotik hartutako erabakia izan da, samina eta nekez hartzen den horietakoa, jakinda, ongi jakin ere, zenbat kosta diren gauzak aitzinera ateratzea zerotik hasita. Alabaina, talde osoa arriskuan jarri baino lehen zati bati 'pause' ematea hobe dela pentsatuz hartutako erabakia izan da.

Izan ere, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe, krisi orokorraren eraginez publizitatean diru-sarrera guttiagorekin eta, LTDaren atarian (Lurreko Telebista Digitala) Foru Administrazioak eta Espainiako Gobernuak telebistaren egoera legezatu eta emisiorako lizentzia eskuratzeko aukerarik gabe utzi ondotik, erabakirik zentzuzkoena arduraz jokatzea dela ikusi da.

Duela hilabete bat uste zen posible izanen zela telebistari eustea diru eta giza baliabide gutxiagorekin (begiratu al-

**«Buelta dezente eman ondotik hartutako erabakia izan da, samina eta nekez hartzen den horietakoa, jakinda, ongi jakin ere, zenbat kostatzen diren gauzak aitzinera ateratzea zerotik hasita. Alabaina, talde osoa arriskuan jarri baino lehen zati bati 'pause' ematea hobe dela pentsatuz hartutako erabakia izan da»**

dizkari honen 485. zenbakian argitaratu genuen erreportajea). Denborarekin, ordea, garbi ikusi da usteak ustel zirela, eta baldintza minimoen azpitik saiatzeara, batere erreala ez izateaz aparte, kaltegarria ere izan daitekeela epe ertain eta luzera begira.

Gauzak horrela, hemendik aitzinera indar guztiak aldizkaria eta ([www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)) webgunea indarberritze-ra bideratuko dira. Biak ere itxura eta eduki berriez hornituak ikusiko dituzue hemendik guttira, udaberria baino lehen.

Ttapi-Ttapa, BIDEA EGINEZ

Prestakuntza lanak lehenagotik hasiak baziren ere, 1998ko ekainaren 15ean hasi zen emititzen Ttipi-Ttapa Telebistaren programazioa. Geroztik ibilbide oparoa egin du, alde gozo eta gaziekin, horrelako egitasmoetan normala izaten den bezala. Eta hori aunitzen lanari, laguntzari eta konfidantzari esker izan da. Mila esker, beraz, hau posible egiten parte hartu duzuen elkarte, udal eta komunitate, laguntzaile, ikusle, publizitatea egiten duzuen eta langile zareten eta izan zareten guztioi.

Ttipi-Ttapan badakigu krisi garaian gaudela —badakigu, era berean, etengabeko krisia dela euskarak bizi duena Nafarroan— baina ziur gaude gauza izanen garela zailtasun hauei ere aitzin egiteko eta etorkizunari behar bezain sendo eusteko. Bide horretan, gogoeta zabal bati ekin zaio gure eskaintza komunikatiboa garai berrietara nola egokitu aztertzeko. Eta bidenabar, proiektu berriak ere garatuko dira 2009an, batzuk aldizkari eta webgunearen zuzeneko garapenari lotuak eta, bertze batzuk zabalagoak, diru sarrerak haunditzera bideratuak.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Etxebizitzak eraiki bai, baina hutsik. Han eta hemen, etxe eta pisu dezente ikus daitezke salgai eta horietako gehienak hilabeteak daramazkite egoera berdinean, erostera nor animatuko den zain.

# Etxebizitzak saldu ezinik, errentan ematea erabaki dute hainbatek

2008KO LEHEN SEI HILETAN %38 JAUTSI ZEN SALMENTA NAFARROAN

**Batzuk bankutik bankura etxebizitza bat erosteko hipoteka eskuratu ezinik, eta bertze batzuk, esku artean daukaten hipoteka ordaindu ezinik. Etxebizitzen merkatua hondoa jota dabil, batzuk saldu ezinik eta bertzeak erosi ezinik. Nafarroan, erraterako, joan den urteko lehen seihilekoan %38 egin zuten beheiti etxebizitzen salerosketek, bai berrienak eta bai bigarren eskukoena ere. Gure eskualdean ere nabaritu da beherakada eta euren etxe zaharrak saldu ezinik harrapaturik daudenak ez dira gutti, etxez aldatzeko beharra dutenak baina ezin dutenak, alegia. Etxebizitzak saldu ezin eta gehienek errentan ematea erabaki dute, baina halere, nahiko kontu. Hasierako prezioa jautsi duenik ere bada, baina alferrik. Bide desberdinetara jo dute herritarrek baina ez dute deus ere lortu. Zurrumbilo horretan aurkitu ditugu ondoko protagonistak. Batzuk ez dute etxebizitza saldu edo errentan emateko berehalako premiarik baina bertze batzuentzat, ordea, ezinbertzekoa da lehenbailehen saltzea. Diru hori bertzelako gastuei aitzin egiteko premiazkoa dute.**

## Gurutze PIKABEA

Bakoitzakekonomikoki dituen beharrak diferenteak dira, baina denek ere helburu bera dute: etxebizitza saldu, eta ezin bada, errentan eman. Izan ere, etxeen salmenta moteltzen joan den heinean, alokairuaren aukera igo egin da. Inmobiliaria edo etxe agentziak gaizki dabilta eta eskualdean itxi denik ere bada. Baina jende arruntak ere arazo bera du: etxebizitza ezin saldu.

## Narbarten, etxebizitza salgai

Hipoteka ordaintzeko eta bertze bat erostea amets

Maitanek pisu bat du Narbarten, baina berak Donezteben bizi nahi du senarrarekin. Oraingoan, errentan hartutako pisu batean bizi dira Donezteben, eta Donezteben bizitzea hobeki dator kielako Narbartekoa saldu eta Donezteben erosi nahi dute pisua. Bertizaranako errentan emana duen arren, Donez-

«Iruzur egin zidaten eta nire diruarekin gelditu ziren. Egoera pertsonala ere aldatu zait eta bakarrik ezin diet gastu guztiei aitzin egin»

teben ordaindu behar duten alokairua Narbartekoarekin jasotzen duena baino altuagoa da. Eta horrela, «dirua galtzen ari gara», dio Maitanek. Gainera, hipoteka bat ere badute ordaintzeko, Narbarteko etxea hartu zutenean eskatu zutena. Luzaroan edukiko omen dute hipoteka gainean: «35 urterako».

Diruaren premiak behartuta, Narbarteko etxeari hasieran ezarritako prezioa –162.000 euro–, jaisteko prest dago Maitane, lehenbailehen saldu nahi duelako. Inmobiliarietara ere jo omen dute, baina «alferrik, ez dira mugitzen».

#### Lesakan, proiektua salgai

### Iruzurraren ondorioz, gastuei aitzin egin ezinik

Susanak salgai duena ez da, ez etxea, ez pisua ere. Etxebizitza baten proiektua dauka saltzeko, lurra eta lizentziakin. Esperientzia txar baten ondorioz, gastuei nola aitzin egin ez dakie la dabilela kontatu digu: «Iruzur egin zidaten eta nire diruarekin gelditu ziren. Epaike-ta irabazi dut baina iruzurgileak kanpora joan ziren ihesi eta uste dut galdutako diru hori ez zaildala ailegatuko». Behar-beharrezkoa du dirua. Gainera, egoera pertsonala ere aldatu omen zaio, eta ordaintzeko gastu «gehiegia» ditu. Eta tartean hipoteka bat.

Etxe agentziak, aldizkariak, egunkariak... Gisa guztietara ahalegindu da Susana saltzen, baina zaila. «Kurioso aunitz hurbildu zaizkit baina interesa dutenak gutti». Diruaren beharra aitortu arren, ez dago hala honela saltzeko prest. «Galdutako guztia berreskuratu nahi dut eta ez dut salmenta txarra egin nahi». Eta bitartean zer? «Dirua galtzen ari naiz».

#### Beran, pisua salgai

### Probetxurik atera ezin eta saldu nahian

Josefaren familian probetxurik atera ezin dioten pisu bat dute. Orain alokairuan dago, baina euren asmoa saltzea da. Josefaren sendiko bat da pisuaren jabea, baina arrazoi jakin batengatik, ezin du herrian bizi, eta salduz aterako luketen dirua bertze erabiltzeko errentagarria izan daitekeelakoan daude. Ttipi-ttapari kontatu diotenez, 2005az

«Beharrezkoa dut lehenbailehen saltzea. Hipoteka bat ordaindu behar dut eta bertze pisu bat erosi nahi dut hobeki datorkidalako».

geroztik, pisuaren prezioa bere horretan mantendu dute, 210.000 euroren inguruan. Etxe agentzia batera jo zuten pisua zenbatean jar zezaketen jakiteko eta gorabeherarik gabe bere horretan segitzen du. «Inmobiliariak gehiago eskatzen ahal genuela erran zigun, baina egindako balorazioaren arabera ari gara, gehiago eskatu gabe».

#### Arizkun, pisua salgai edo errentan

### Astez hutsik dagoen pisu bati erabilpena emateko

Marian Iruñan bizi da bere senararekin. Duela urte batzuk pisu bat erosi zuten Arizkun, Baztan gustukoa izaki, asteburuetan inguru hauetara etortzeko. Baina ez diote nahi adinako erabilpenik eman. «Asteburu batzuetan baino ez ginen etortzen eta erabili gabe egon beharrean saltzeko edo errentan emateko paratu genuen». Pisua berehala saltzea ez omen da beharrezkoa eurentzat, baina salmentatik edo alokairutik aterako luketen dirua ongi etorriko litzaiekeela aitortu digute.

#### Legasan pisua errentan emateko

### Bertze inbertsio bat egiteko gogoz

Duela urte gutti, pisua erosi zuen G. Agirrek Legasan, bere bikotekidearekin, eta han igaro zituzten lehen bi urteak. Gerora, ordea, familia arrazoiak tarteko, Berara etorri behar izan zuten bizitzera, gurasoen etxera. Hartara, Legasako pisua hutsik gelditu zenez, saltzeko atera zuten, eta salmentatik aterako luketen diru horrekin hemendik kanpo bertze inbertsio bat egitea pentsatu zuten, «bertze gisa batera disfrutatze-ko». Baina krisi garai hau ez da saltzeko sasoirik aproposena eta alokairuaren aldeko apustua egin dute berriki. Hori bai, beldurrez. «Ordainduko duten eta nola zainduko duten beldur».

Etxebizitza merkeegi saldu baino, nahiago du ez saldu G. Agirrek. «Duela bi urte tasatzailearekin solastu, eta 168.000 euroren bueltan ezarri zuten prezioa. Gaur egun, ordea, ez dut uste 150.000 inguru baino gehiago inork ordainduko duenik», dio Agirrek. Beraz,

«Azken hiru urteotan pisua hutsik dago. Gainera, igogailua paratuko dute eta 12.000 euro ordaindu beharko ditugu hutsik dagoen etxebizitzagatik»

lehenbailehen saltzeko premiarik ez duenez, lasai hartu, eta ez du pisuak balio duena baino guttiagoan salduko.

Etxe agentzia batera ere jo zuen hasiera hartan, baina joan den urtean itxi egin zuten agentzia, hau ere krisiaren ondorioz. Orduan erabaki zuen Agirrek saltzeko aukera baztertu eta errentan ematea. Eta halaxe dago geroztik.

#### Elizondon, pisua errentan emateko

### Pisua hutsik, baina gastuak ordaindu behar

Juan Miguelek eta bere emazteak etxea egin zutenean gelditu zen ordu-ra arte euren bizitokia izan zena hutsik. Hasiera hartan, seme-alabetako bat geldituko zela pentsatu zuten, baina ez da horrela izan. Horregatik paratu zuten salgai eta inmobiliaria batera ere jo zuten hasieratik, baina ez dute nahi zutena lortu. Egoerak hala behartuta, errentan emateko aukerari heldu diote orain.

Pisua hutsik egonda ere, guttieneko gastuez gain, eraikinean laster paratuko den igogailuarengatik ere ordaintzea tokatuko zaie, 12.000 euro, hain zuzen. Halere, Elizondon igogailua eskaintzen duten pisuak gutti izanik, plus bat izan litekeela uste dute jabeek.

Pisuaren balioaz ere galdetu diegu, eta duela hiru urte tasatzaileak 162.000 euroko balioa zuela erran omen zien. Baina orain, prezioek beheiti egin dute-nez, «baliteke, 144.000 eurora ere jaiste-a. Dena den, igogailua paratu behar dugunez, ez genuke gehiegia jautsiko».

#### Leitzan, etxebizitza eta bajera

### Aukera berria tokatu eta etxebizitza zaharra hutsik

Duela hilabete, etxebizitza eta bajera paratu zituen salgai Marisolek. Tokiko hedabideetara eta herrian kartelak paratuz saiatu da saltzen. Herri erdian, toki hobean, bertze etxebizitza batera joateko aukera eduki zuten Marisol eta familiak eta orain artekoa hutsik gelditu zaie. Bajeraren erosleak badituztela erran digu, baina bere hitzetan, «pisuarekin batera salduta, aukera zabalagoa eskaintzen ari gara erosleari». 192.000 euro inguruan ezarri dute prezioa, baina «negoziatzeko prest» daude.

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemaneu Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Irtxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2009ko harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Sara (La Poste)	54 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Gu ere, ez gaude ados!

Goizueta herria bizi-rik mantentzeko, urte guztian zehar hainbat ekintza antolatzen dira, zeinetan Gazte Asanbladak beti hartzen duen parte.

Honela, aurtengo Ferietan gertatu diren gertakariekin gure desadostasuna adierazi nahi genuke. Hala nola, herri bazkarian botatako pardoekin eta Gaztetxe ondoko baratzean izandako txikizioekin.

Lehenengoari erreferentzia eginez, Ferietako antolatzaileetarikotzat garen heinean, pena handia emango liguke, gertakizun horien ondorioz, etorkizunean jendeak egunean zehar antolaturiko ekintzetan parte hartzeari uzteak.

Bestalde, bigarren-goari dagokionez, gure aldetik kritika gogorra egin nahi genioke. Izan ere, gertaera hauek guztiak, baratzaren jabeari

kalteak eragiteaz gain, Gazte Asanbladaren ize-na zikintzen baitute.

Beraz, honekin guztiarekin, honelako gertaerekiko gure desadostasuna adierazteaz gain, hauen erantzuleei honelako ezer gehiago ez egiteko eskatzen diegu.

### Goizuetako Gazte Asanblada

### Gutxiagotasun konplexuak

Gu gazte ginelarik, gure inguruan, musikari dagokionez, rockak arrakasta gehien lortzen zuen arren, mundu mailan izugarritzako arrakastak lortu zituen gazte beltz bat zebilen, Michael Jackson, pop musikaren erregea. Guri onartzea kostako bazitzaigun ere, bere kanta, bideo eta niretzako, bategi ere dantzak oso onak

zirela esan beharra dago.

Arrakasta, dirutza, mundu mailako ospea irabazteko abildadea izan zuen arren, askorentzat garrantzitsua goak diren gauzak galdu zituen, handinahikerietan itsututa edo izateaz lotsa behin eta berriaz erakutsi zuen, maitatu behar zuen jende askoren estimua galduz. Batzuek batzuk pozik esaten zuten, beltzak ere ez dute izan nahi beltz.

Estrabagantzia horietaz asko hitz egin zen bere garaian: horrelako ospea eta diruak edozein gizajo jainkotu egiten dutela; a ze itsuskeria beltzentzat, ze pentsatuko dute? Baina horrek zein engainatu nahi du? Denok ikusi dugu eta mutikotan surmotz beltz-beltza dantzatan. Horrelakoak entzuten ziren.

Behin eta berriz alderaketak gorrotagarriak direla entzuten dugun arren, denok egiten ditugu. Zergatiak bila-

tzeko garaian, antzekotasunak izan ditzaketean gaiak elkarren ondoan jarri eta bestelako ikuspegietatik begiratzeari bere onurak ere aitortu behar zaizkio.

Gatozen gurera. Garai beretsuan Euskal Herrian arrakasta eta ospe handia lortzen ari ziren euskal kirolarietako batzuk (kirolean abildade handia onartu behar zaie), beraien semeek ez zutelara euskara ulertu eta hitz egiten erabaki zuten, beraien herrietako baita familietakoko jendeen esanetako asko ere ez zituztela ulertuko, euskal kantak, bertsoak, liburuak, egunkariak, esaerak, euskarazko telebista eta irratiak esanak ez zituztela ulertuko. Handinahikerietan itsututa edo, euskaraz esanda koak eta idatzitakoak ez zaizkiela axola erakutsi ziguten, ez gaituztela aintzat hartzen, maitatu behar zituzten jende askoren estimua galduz. Beharbada jokaera be-

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.





rarengatik lagunak ere egin izan zituzten «Nafarroa, Nafarroa da», akaso pozez eta parrez, euskaldunak ere ez dute izan nahi euskaldun esaten dutenetakoak, baina jakitearen ukazioan oinarritutako lagunarte interesatuak zer balio du?

Beraz, konplexuek, ospea eta dirua, ignorantzia pittin batek ematen duen ausardiarekin, ingurukoak gutxiestera eta horrelako handinahikerietara eraman gaitzate.

Egindakoa egina dago, baina prezio berean baten lekuan bi hizkuntza jakin zitzaketen gazteek aurrerantzean egoera txukun dezakete. Adibidez, *ni puta falta que hace* edo *gracias* esan beharrean, konplexurik gabe, kortesiazko eskerrik asko ala esker mila esanaz has litezke. Animo mutilak!

Josefe  
Leitza

## 'Hemen, euskaraz'

Lotsagarria da inguru honetan euskarari ematen zaion tratua. Horretaz ohartzeko, errepide bazterretan eta geure etxe ataritan, geure muturren aurrean, dauden kartelei begiratzea besterik ez dago. Lautik hiru erdaraz daude. Eta hori bezain lotsagarria da Mankomunitateen eta Herriko Etxeen utzikeria. Hau ikusita, beharrezkoa da norbera ipurdia mugitzen hastea eta hizkuntza arrotzean dauden idatziak, nola edo hala, urratzea edo tapatzea begien bistatik kendu arte. Hemen, garbi dago gurea dena defenditzeko guk geuk saiatu beharko dugula ondokoak eginen duenaren esperantzan egon gabe. Hemen, euskaraz.

Bi herritar

## • 11 GALDERA LABUR •

**Nafarroa guziko mila ipuin baino gehiagoren artean zurea izan da aukeratuetakoa bat. Kontent zaudete?**

Bai, hagitz kontent! Egia erran, ez nuen espero. Bertsoetan joan den urtean ongi gelditu nintzen baina oraingoa ez nuen espero.

**Zein da 12 lerrotan edo guttiagotan ipuin bat idazteko sekretua?**

Nik txiste gisako bat egin nuen, grazia egiteko.

**Gehienez ere 100 hitz idazten ahal zenituzten. Ez zaizu guttiegi iruditzen?**

Ez, nahikoa da.

**Zer kontatu duzu mikro-ipuinen horretan?**

Bazela behin Pepito izeneko gizon bat, eta munduaren azkenera ailegatu nahi zuela. Buelbaka eta bueltaka hasi zen baina azkenean konaturatu zen Etxalarri bortz buelta eman zizkiola. Gero, emazteak erranzion mundua bobobila dela. Berak ez zen kien.

**Zergatik aukeratu duzu 'mikro-ipuina' izenburua?**

Irakasleak hori paratzeko erran zidan eta...

**Epaimahaiak zergatik aukeratu ote du zure ipuina?**

Ba ez dakit. Igual grazia duelakoz.

**Idaztea gustatzen al zaizu?**

Bai, gustatzen zait.

**Eta eskolan, zer moduz zabilta?**

Ongi erranen nuke, ea irakasleak zer erraten didan...

**Pentsatua duzu urte batzuk gehiago izatean zer egin nahi duzun?**

Ez, oraindik ez. Lasterka ibiltzea gustatzen zait baina ez dut deus ere pentsatua.

**Lasterka eta idazteaz gain, baduzu bertze afiziorik?**

Ez.

**Ba al dakizu zure izen-abizenak dituela Berako musikari ezagun batek?**  
Ez nekien. Ez zidaten inoiz deus ere errana!



**Joseba IRATZOKI**  
11 urteko etxalartarra

**carroba**  
gustaga

27. urteko 25. belaunaldia  
948 625 0199  
www.carroba.net

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

ingardotegia jaitzen

Alasta karrika

BERA NAFARROA

MERTZERIA  
*Leño*  
LENTZERIA

948 627 514  
Ibañeta Plaza 10 - LESAKA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Ibañeta 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**udana**  
salazones

UNE-EN-ISO 9001  
**LAC**  
SISTEMA DE CALIDAD DE PRODUCTOS  
9CC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia  
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Akasa Ind. - Banata, 8 - 23. pabiloia - LESAKA - Tlxoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

## LANA

# 2007an baino 249 langabe gehiago daude Doneztebeko Bulegoan

2008ko abenduan 847 ziren Doneztebeko INEMen izena emandakoak

## ttipi-ttapa

Enpleguari buruzko datu txarrak. Halaxe jogan zen 2008a. Urtea 847 langaberekin akitu zen eskualdean, azaro hondarrean baino 57 gehiagorekin. Doneztebeko Enplegu Bulegoan hilabete batean %7,22 igo zen langabezia, Nafarroako %9,24ko banaz bertzekoa baino guttixeago. Halere, 2007ko abenduan 598 langabe zeudela kontuan hartuz, urtebetean 249 langabe gehiago zeuden eskualdean.

Enpresen itxierak, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak eta bertze arrazoiak tarteko, 2008a txarra izan da enpleguarentzat.

## 353 KONTRATU ABENDUAN

Doneztebeko Bulegotik 353 kontratu atera ziren aitzinerabenduan, eta horietatik 45 bakarrik izan ziren mugagabeak.

## GEHIENAK 25 URTETIK

GOITIKO EMAKUMEZKOAK Adina eta sexuari dago-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Funverako LAB sindikatuak deituta, EREaren kontra egindako protesta Beran.

kionez, ia tarte guzietan goiti egin zuen langabeziak. Baina ohikoa denez, 25 urtetik goitiko emakumeak izan ziren gehienak. Abenduan 411 langabe zenbatu ziren, azaroan baino 17 gehiago. Halere, 25 urtetik goitiko gizasemeen artean izan zen igoerarik bortitzena, azaroan baino 40 langabe gehiago baitzeuden abenduan, 336.

25 urtez beheitiko gizonzkoen artean ere goiti egin zuen kopuruak. 68 gizon zeuden lanik ga-

be, azaroan baino 2 gehiago. 25 urtez beheitiko emakumeen artean, aldiz, beheiti egin zuen langabeziak: 32 langabe ziren, azaroan baino 2 guttiago.

## ZERBITZUEN ARLOA KALTETUENA

Lanarloi dagokienez ere, denetan goiti egin zuen langabeziak, baina zerbitzuen arloak segitu zuen diferentziarekin langabe gehienekin. Abenduan 484 langabe zituen arlo horrek (azaro hon-

darrean baino 25 gehiago). Industrian 213 langabe zeuden (azaroan baino 25 gehiago). Eraikuntzan 6 lagunetan goiti egin zuen langabeziak eta 79 langabe zenbatu ziren; nekazaritzan ere goiti egin eta 18ra igo zen kopurua (azaroan baino 1 gehiago).

Aitzinetik lanik topatu ez zutenen artean, berdian segitu zuen langabeziak abenduan, azaroan bezala 53 langabe zenbatu ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan.

## BORTZIRIAK

## Ostatu eta jatetxeetako beirak biltzeko kanpaina abian

## ttipi-ttapa

Bortziritako Hiri Hondakinen Mankomunitateak bertze kanpaina bat paratu du martxan beiraren birziklapena bultzatzeko. Kanpaina berri hau ostatu eta jatetxeetara bideratu du, establezimendu hauek direlako hondakin mota honetako zatirik haundiena sortzen dutenak. Sistema berri honen bitartez, beirajasetzen duten edukiontziei aho berria ireki zaie. Horrez gain, gurgildun ontziak banatuko dira, botilak modu errazean eraman eta bota ahalizateko. Hala, botilak banaka bota beharrean, denak batera bota ahal izanen dira. Hasiara batean, ontzi hauek Bera eta Lesakako ostatu eta jatetxeetan banatuko ditu Mankomunitateak, baina bertze herrietara zabaltzeko asmoa ere badu.

**ZJ**  
Zalain  
jateketa - hostala

14 logela bainu  
eta TBrekin

Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**SUPER MERKEALDIA**

Beroki eta txamarrak -%30 eta -%50  
Soineko eta gonak -%30 eta -%50  
Jertseak eta puntuzko txaketak -%50  
Galtzak; Pare 1 -%30 eta bi pare -%50  
Kamisetak; bat ordaindu eta bi eraman  
Zapatak eta botak; 10€ 20€ eta 30€  
Poltsak -%20

Bera  
burutik hanketaraino

Eztegara pasealekua 12 - 31780 Bera - Tel. 948 631 425



## BERA

### Tokiko entitateak diruz laguntzeko duen era aldatzeko eskatu dio Udalak Gobernuari

Udal eta mankomunitateek euren egitasmoak erabakitzeko ahalmen gehiago izanen lukete

#### ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak udalak, mankomunitateak eta bertzelako toki entitateak finantzatzeko duen eredia aldatzea eskatu du Herriko Etxeak. Nafarroako aurrekontuen harira, Josu Irazoki alkateak eta bere taldekideek aurkeztu zuten mozioa eta EA, Aralar nahiz EAJko zinegotziek aldeko botoa eman zuten.

Onartutako mozioaren arabera, tokiko entitateek Gobernuak jasotzen zergen banaketan parte hartuko lukete. Gobernuak zergen bidez jasotzen duenetik, guttinez toki entitateen funtsari jasotakoaren %25 bideratzea nahi da, tokiko entitateen artean banatzeko. Eskumenen deszentralizazioa haunditza da Udalaren nahia eta hori eskatu dio Gobernuari, baita «*finantzaziorako diru-sailak haunditzea*» ere, «*batik bat gizarte gaietakoak*».

#### Eski bidaia

Eski alpetarra eginez astebukaera on bat pa-

satzeko, Labiaga Ikastolak Luz Ardidenera ateraldia antolatu du ikastolako ikasle ohiei zuzendua. Bidaia hilaren 30etik otsailaren 1eko asteburuan egingen da. 30eko arratsean egingen dute bidea eta, 31n eta otsailaren 1ean eskiatzen ibiliko dira. Hango egonaldia apartamentu batean egingen dute.

Bidaiaren prezioa 130 euro ingurukoa izanen da eta horren barne, bi gauetako egonaldia, bi egunetako forfaitak eta aseguruia, tasak eta autobusa daude.

Izena emateko [bera@ikastola.net](mailto:bera@ikastola.net) helbidera idatzi edo ikastolara deitu beharko da (948 630172).

#### Tunisiara bidaia

*Larun Haizpek zure erosketak saritzen ditu* lelopean, bi lagunentzako Tunisiara bidaia eta aste bateko egonaldia zozketatu zuen Larun Haizpe komertzianteen elkarteak Eguberrietako kanpainaren barne. Hilaren 6an jakin



ARGAZKIA: I. UGALDE

#### Santa Barbarara igoera

Arrakastatsua izan zen urtarrilaren 10ean egin zen Santa Barbarara Igoera, Manttale taldeak, Agerra Mendi taldeak eta Gure Txokoa elkarteak, Udalarren laguntzaz bigarren urtez antolatuta. Joan den urtean bezala, igoera honekin omenaldia eskaini nahi izan zitzaizen duela bi urte Taillon mendian hil ziren Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiri. Horregatik, konpetizioa baino gehiago, jendearen parte-hartzea bilatu zuten antolatzaileek. 52 bikotek parte hartu zuten eta horiez gain, proba ikustera eta animoak emateko asmoarekin bertze pertsona aunitz hurbildu ziren Santa Barbarako kaxkora.



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Beratik Goizuetara oinez otsailaren 1ean

Agerra Mendi Taldeak, bertze urte batez, Bera-Goizueta ibilaldia antolatu du otsailaren 1erako. Ibilaldi osoa oinez egin nahi dutenek 7:00etan izanen dute hitzordua Agerra Mendi Elkartearen. Ibilaldia Aginan hasi nahi dutenek 8:15ean izanen dute autobusa Agerran eta oinez joan nahi ez duenarentzat, autobusa 11:00etan aterako da Elkartetik. Izena hilaren 28a baino lehen eman behar da Agerra Mendi Taldean edo 948 630362ra deituz, gaez. Bazkaria Goizuetako Umore Ona Elkartearen izanen da. Argazkia duela bi urte atera zen Artikutzan.

zen saritutako zenbakia, Errege Eguneko loteriaren lehen zenbaki

sarituaren berdina: 28.920. Txepetxa albaitaritzan klinikan emana

da. Bidaia martxoaren 1etik 31ra bitartean egingen izanen da.

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak  
barrukoak eta fatxadak  
tel. 666 235 466

**JARDINE-GOZTETAK**  
Mozioa 19. BERA 94830172

**BAR BOIXO**  
OSTATUA  
Zaten • BERA • 948 630 052

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 • BERA

## LESAKA

# Nabazen 300 etxebizitza egiteko proiekturik dagoenik ukatu du alkateak

PNVk gogor salatu du udal hirigintza politika eta lehenik herrigunearan eraiki behar dela dio

Aitor AROTZENA

«Nabazen 300 etxebizitza egiteko inolako proiekturik ez aurre-proiekturik ez da Herriko Etxean aurkeztu eta Udalean ez dugu gai hori tratatu edo estudiatu, hain xuxen, deus ez dagoelako». Honela erantzun dio Ttipi-Ttapani Koldo Erkiziak egunotan karraketan paratu diren kartelen edukari buruz galdetutakoan. Alkateak jakinarazi duenez, «*hurhoriaren egoerari buruzko kontsulta bat egin da, baina horrelako kontsulta aunitz egiten dira Herriko Etxean, eta horrek ez du erran nahi etxebizitzak eginen direnik*».

PNVk, aldiz, bertzelako iritzia plazaratu du Batzoki boletinaren bitartez. Udalak daraman hirigintza politika gogor salatu eta Nabazen 344 etxebizitza egiteko asmoa dagoela aipatu du. «*Logikoena etxebizitzak leku urbanizagarrian egitea da eta ez herritik 2 kilometrora. Landa-*

*zelaietan 3.000 metro koadroko tertziarioa egitea astakeria baldin bizen, Nabazen 12.000-koa egitea zer litzateke?»*, galdetu du PNVk bere boletinean.

## Alkaiagatik industrialderako bidea

Alkaiagako industrialdetik auzora doan bidea, hesi baten bidez ibilgailuei ixteko eskaria egin zuten auzotarrak Herriko Etxean. Alkaiagarrek bere garaian onartutako proiektuan bildua zegoena erresetatzea nahi dute, industrialdeko trafikoak auzoan ez zuela eragin izaneren, alegia. Izan ere, industrialdera joateko eta ateratzeko, auzoko bide meharra erabiltzen dute ibilgailu aunitzek. Udal plenoan bidea ixtearen alde agertu zen Onin, baina kontra EA eta PNV. Bidea moldatzeko eta espaloiak zabaltzeko proiektua egin nahi omen du Udalak.



ARGAZKIA: AITOR A.

«*Etengo ez den soka» eskaini zuen Ikastolak* Ikuskizun ederra antolatu zuen abenduaren 28rako Tantirumairu Ikastolak, *Etengo ez den soka* izenburupean. Antzerkia, jokoak, musika, bertsoak, dantzak, ipuinak eta bertze hainbat arlo uztartuz ordu eta erdiko ikuskizun gutargarria eman zuten karmeldarren komentu zaharrean. Eraikina zaharkitua izanik ere, soinu aldetik kalitate bikaina eman zuten eta lehengo eta oraingo ikasleek, irakasleek eta gurasoek emanaldi ederra eskaini zuten. Argazkian, Erika Lagoma eta Etxabe ageri dira bertsoak kantari, Iban Garro gitarrarekin lagun dutela. Ikuskizuna akaututa, jaialdiaren ideia izan zuten eta bertze hainbat lagunekin batera buru-belarri prestatzen aritu diren Lupe Muxika eta Lupe Altunari omenaldia eskaini nahi izan zieten parte-hartzaileek zenbait oroigarrirekin eta komentua bete zuten jendearen txalo zaparradarekin.



ARGAZKIA: TELLETXEA

*Susperregi-Dagerre laugarren aldiz txapeladun* Susperregi eta Dagerrek laugarren aldiz irabazi zuten Batzoki elkarteak antolatutako Xabi Zozaia Paleta Goma txapelketa. Lehen mailako finalean 30-26 irabazi zieten Mololo Irigoien eta Imanol Telletxea lesakarre. Bigarren mailako finalean, Aitor Oiartzabal lesakarrak eta Santamaria beratarrak 30 eta 18 irabazi zieten Altzugarai beratarrari eta Txoperena igantziarrari.





## ETXALAR

### Internetarako ADSL konexioa paratu nahi du Telefonikak

Interesatuak 900 702022 telefonora dei dezakete

#### Joseba eta Nerea

Telefonica enpresatik jakinarazi dutenez, abudo herritarron eskura paratuko dute ADSL banda zabala. Zerbitzu hone tan interesa duenak 900 702022 doako telefonora dei dezakete, 9:30etik 14:00etara (Noemi).

#### Usategiei buruzko DVDa

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuak, Lizarrako Julio Caro Baroja Museoaren bitartez, herriko usategiei buruzko 32 minutuko erreportajea egin zuen bere garaian. Guzira 150 ale argitaratu ziren baina ez ziren salgai jarri. Orain, ordea, Udalak DVD honen bigarren edizio bat argitaratu du eta 5 euroan salgai paratu du Herriko Etxean eta Kultur Etxean.

#### Sorosle izateko ikastaroa

Azken udatan igerile-

kuetako sokorristak lortzeko egon diren arazotak kontuan hartuta, sorosle izateko ikastaroa eskaini nahi du Udalak. Taldea aterako balitz ikastaroa zonaldeko igerilekuren batean eginen litzateke eta bertzela Irun edo Hondarribian. Izenematea Herriko Etxean egin beharko da otsailaren 6a baino lehen.

#### Patinaje ikastaroa

Hiru urtez Maite Olaetxea eta Amaia Elizaldek antolatu zuten aspaldiko ohitura den patinaje ikastaroa. Orain Jone Bizente eta Andrea Elizaldek hartu diete erreleboa. Patinatzen ikasi eta ongi pasatzeko helburuarekin, 30 lagunek eman dute izena, eta duela bi larunbat hasi ziren frontoian. Ttikienak 11:00etatik 12:00etara aritzen dira, eta nagusiak 12:00etatik 13:00etara. Apirilera bitarte izanen da ikastaroa.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

#### Etxalar elurretan

Etxalarren ere irudi politak utzi zituen elurrak duela bi aste.

#### Administrari laguntzaile lanpostua

Herriko Etxeak administrari laguntzaile lanpostu behin betiko plaza betetzeko oposizio deialdia egin du. Azkeneko urte hauetan lanpostu honek behin-behineko izaera izan du, baina hemendik aitzinera behin betikoa izanen da. Kontratua egun erdikoa izanen da eta izena emateko udaletxean eskatu behar dira argibideak. Hilabeteko epea izanen da horretarako.

#### Bestak prestatzeko bilera

Ortziralean, hilak 23, Kultur Batzordeak deitu-

riko bestetako programa antolatzeko bilera izanen da 19:30ean Kultur Etxean. Horretarako, herritar guztiei egin zaie deia, izateko bestetan oinarrituz, 2009rako proposamenak egiteko, eta modu hone tan denon gustuko bestak antolatzeko.

#### Larraburuko mus eta partxis txapelketa

Joan den abenduan jokatu zituzten Larraburuko jubilatuek mus eta partxis txapelketako hondar partidak. Musean 22 gizonek hartu dute parte eta partxisean 16 emakumek.

Jose Luis Arretxea eta Jabier Irisarri izan ziren museko txapelkunak, eta Santiago Olasagasti eta

Daniel Iparragirre azpitxapelkunak. Hirugarren postuan Santiago Mixeltoarena eta Gaston Lestuzzi gelditu ziren, eta laugarren Jesus Ansalas eta Leontxio Arburua.

Partxisean, berriz, Enkarna Iparragirre eta Mari Cruz Andueza izan ziren irabazle. Bigarren lekua Marta Maiak eta Gloria Maiak lortu zuten, eta hirugarrena Mertxe Santesteban eta Mari Isabel Berruetak.

Txapelketa hau akabatu orduko, hasiak dira bertze batean; urdaiazpiko txapelketan. Hilabete eta erdi inguruz iraunen duen txapelketa otsaila hondarrean akabatu dute, eta orduan ere sari banaketa eta bazkaria eginen dituzte.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonoak</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berritzaile ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilatze espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aumekontuak</li> </ul>
--	--

artekari@artekari.com

**LESABA:** Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak**

### LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

**Txotx denboraldia irekia**  
**Eskualdean egindako sagardoa**

**LARRALDEA**  
Tolosa auzoa - LEKARIZ  
948 402221 - 426 404337

**LINDDURRENBORDA**  
Najar auzoa - LESABA  
948 627132

## ARANTZA

# Eguberrien ondotik inauteriak otsailaren 5, 6 eta 7an izanen dira

Mozorro xuriak antolatzeko bilerak egiten ari dira

## Nerea ALTZURI

Oraindik egitarauari buruzko xehetasunen berririk ez badugu ere, mozzorro xuriak inauterietako prestakuntza bileretan ari dira. Gainean ditugu inauteriak, otsailaren 5, 6 eta 7an izanen baitira. Xehetasun guzien berri hurrengoan emanen dugu.

## Udal kontuak

Hilabetero bezala, abenduan ere, etxe guzietara udal informazioaren txostena banatu zen.

Aurtengo aurrekontuetan aurrikuspen xume bat egin beharko dela ageri da informazioan, lehenengo egoeraz aparte, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ere aunitz murriztu dituelako. Lehenetasunen artean, eskola mol-datzea, herria txukuntzea, gastuak murriztea eta zerbitzuak mantentzea daude. Bertze zenbait puntu ere ageri dira:

## UDAL BULEGOETAN

ORDUTEGI ALDAKETA  
Urte berriarekin batera,

udal bulegoko langileen lanorduen antolakuntza eta lan eraginkortasuna hobetzeko, jendearentzako harrera ordutegi berria 9:30etik 13:00etara da. Gero eta ordu gehiago behar dira udaletxeko paperak prestatzen, deialdiak, kontuak... egiten eta denbora hobeki probeteko harrera ordutegiaren murrizketa egitea erabakida. Halere, edozein presazko kontsulta telefonoz deituta egin ahal izanen da, betiko ordutegian, langileak Herriko Etxean egonen direlako.

## ARAU SUBSIDIARIOEN GIDALIBURUA

Herriko arau subsidiarioen gidaliburua ere banatu da. Izan ere, aunitzetan, hirigintza inguruko arauak zorrotzak dira eta ez dakigu zein baitmen eskatu behar den obra bat egiteko. Liburuxka horretan argibide eta pausu guztiak ageri dira. Gisa berean, udaletxean bertan ere informazioa emanen da ohi bezala.



ARGAZKIA: N. ALTZURI ETA G. PIKABEA

## Ekitaldiz beteriko Eguberriak

Eguberrietan egin ziren ekitaldietatik bi adibide baino ez dira argazkikoak: Erregeen kabalगतakoa eta Ekaitza Elkarrean antolatutako Mus Txapelketakoa. Bietan ere parte-hartze zabala izan zen. Beheitikoan ageri direnak museko lau finalistak dira: bi Joseba irabazleak eta Jaime eta Patxi azpitxapeldunak.

## ITZALALDI ANALOGIKOIA

Jakina da 2010eko apirilean itzalaldi analogikoa emanen dela eta horrela Lurreko Telebista Digitala (LTD) izanen dela. Prestatze aldera, Udala lanean ari da:

LTD (TDT)–aren instalazioa nola izanen den informazioa osotzen ari da. Joan den azaroan, adibidez, Nafarroako Iku-sentzunezko Kontseiluko teknikari bat herrian izan

zen kobertura edo estaldura neurtzen. Horren arabera, Eguzkialdean ez dago koberturarik, Bordalarean %100ekoa da, Aientzan %55ekoa, Azkilarrea auzoan %40ekoa eta herrian %50ekoa. Hutsunetak konpontzea da orain Udalaren helburua.

## UR DEPOSITUAN BERRIZ GORABEHERAK

Ur depositu berria oraindik solasgai dugu.

Azaro aldera herriko langileak depositu berrian arrailak agertzen hasi zirela sumatu zuen. Udalaren ustez, bere garaian herriarentzat hainbertzeko dirutza kosta ziren obrak hainbat arazo ematea ez da normala. Udal berria lanean hasi orduko, arazoak hasi zirela eta konponketak egin arren, arazoak berretu egin dira. Horrela, Udalak Gobernura jo du.

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegi menua

102 Meakal eztoa  
20304 IRUN  
Tfnoa 943 623 130

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**



## BORTZIRIAK-MALERREKA

### Film labur bat egin dute Uxane Okupazio Zentroko erabiltzaileak

Horrez gain, 2009ko egutegia ere kaleratu dute

**ttipi-ttapa**

*Quien monta conmigo* izena paratu diote Berako Uxane zentrokoekin egin berri duten 20 minutuko film laburrari. Uxanen ezintasuna duten pertsonak egoten dira, eta bertako 19 erabiltzaileak, lau ardura-dunak eta Alicanteko Unibertsitateko hiru bolondres izan dira laburrean parte hartu dutenak. Pertsonaia nagusi guztiak gure eskualde-

koak dira, 18 Bortzirietakoak eta bakarra Sunbillakoa. Zuzendari lanak, berriz, Alicanteko Nuria Vicedo zinegileak egin ditu.

Antzerki eskolan entseguak egiten ibili ondotik, joan den urteko uztailean egin zituzten grabaketak Beran, eta urte hondarrean aurkeztu zuten proiektua Berako Kultur Etxean. Antzerkia egiteko ideia Uxane zuzendaria



UTZITAKO ARGAZKIA

**Uxanekoak film laburraren grabaketako momentu batean.**

den Isabel Pardorena eta Nuria Vicedo zinegilearena, eta gidoiaren gaia, berriz, antzerki klaseetatik sortu zen.

**2009KO EGUTEGIA**

Urte berriarekin batera, egutegia ere kaleratu dute Uxaneko ki-

deek. Lehengo urtean, Uxane zinegilearen Benidormen izan ziren oporretan eta han ateratako argazkiak dira egutegian ageri direnak. Ideia hori Isabel Pardo zuzendariarena eta Nuria Vicedo zinegilearena izan zen.

Aipatutako film laburra gaztelaniaz egin bada ere, egutegia elebiduna da, euskaraz eta gaztelaniaz egin.

Guztira 225 ale ateratu dituzte, eta bortz euroren truke salgai paratu dituzte.

# AMAIYR

Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • 948 450 400



BAINUAK

SUKALDEAK

PARETA-ARMAIRUAK

## SUNBILLA

# Eguberriak akitu orduko inauterietarako prest

Ortziral honetako eskearekin hasi eta igandera bitarte adin guztietako jendearentzako ekitaldiak izanen dira

## Jaione OTXANDORENA

Joan zaizkigu Eguberriak, eta primeran gainera. Abenduan Olentzeroren bisita izan genuen, eta urtarrilaren 5ean, berriz, ilunabar aldera, Hiru Errege Magoak etorri ziren. Eliza atarian eseri ziren, bertan bildutako jende andanaren aurrean, baina txikienek gozatu zuten gehien. Erregeei muxu eman eta hauek ordainean opariak eta goxokiak banatu zitkien. Lerro hauek probetxuz, Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie, Olentzero nahiz Erregeen kabalgata an-

tolatzen lagundu duten guztiei. Eskerrik asko!

## Inauteriak asteburuan

Eguberriak joan orduko, hementxe datoz inauteriak. Gure herrian beti, urtarileko laugarren igandean ospatzen dira, beraz, aurten, asteburu honetan izanen ditugu, urtarrilaren 23, 24 eta 25ean.

Ortziraleko eskearekin hasi eta igande gaueko ordu txikiak arte izanen dugu inauteriez gozatzeko aukera, **Ttipi-Ttapa**ko gehigarrian ikusiko duzuen bezala, egitarau zabala baitago,



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Gaztetxoek kontent gelditu ziren Errege Magoek ekarritako opariekin.

haur, gazte, heldu, emakume nahiz gizonezkoentzat!

## IZEN-EMATEAK

Gazteek etxez etxe egiten duten eskean ibiltzeko izena urtarrilaren 21a baino lehen eman beharko da Itturburu ostatuan, eta igande eguerdian Ulibeltzak Elkartean egiten den bazkarira joan nahi duenak, berriz, txartela urtarrilaren 22tik aitzinera izanen du Itturburu ostatuan. Ongi pasa inauteriak!

## Euskal Herriko Mus Txapelketa

Datorren otsailaren 6an Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa jokatuko da Ulibeltzak Elkartean. 21:30etik aitzin eman beharko da izena (20 euro bikoteko) eta 22:00etan hasiko da txapelketa. Irabazleak Iruñian egiten den kanporaketara pasako dira. Final handia, berriz, Seguran (Gipuzkoa) jokatuko da, martxoaren 14an. Irabazleek 3.000 euro, astebeteko kruzeroa eta txapela era-

manen dituzte.

## Eskolako jangelari laguntza

Berriro ere martxan dago Nafarroako Kutzako *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoan, eskolako jangelari laguntzeko proiektua. Lagundu nahi duenak Nafarroako Kutxara joan eta bertan emanen diote guztiaren berri. Bertzela, Nafarroako Kutzako web gunean ere egin daiteke ([www.cajanavarra.es](http://www.cajanavarra.es)).

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
**ATERPE**  
ALBERGEA · JATETXEA

**MARTIKO**  
Pnt. Zazpi, s/n  
31793 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

Martikorekin zu zeu sukaldari.

**DENDA**  
OSTIRALEZKIN  
ORTZIRALEZKIN

8.30etik  
12.30era  
14.30etik  
17.00etara

**ANTZUZELAZ**  
S.L.

Tel: 948 631 317

**MARKO NATURALA**

Ahorruen eta Lantzen

<ul style="list-style-type: none"> <li>Hariak</li> <li>Harriak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> <li>Hariak</li> </ul>
---	--

Abentura Bona  
Tatuarekin, gozatu!

**JANTZEN ARTEAN  
ZUK**

Bunga erregate  
BERA

**TOLDOS BAZTAN, S.L.**

TOLDOAK; salmenta-konponketa, sikanak, errotulaje  
MOSKITERAK-PERTSIANAK, moldizabak, irendarrik  
PVCzko LEIHU eta ITXITURAK

**TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA**  
Telleturako, egurrak, papazeko  
Neurriak: 10x10 m - 10x14m - 8x7m - 5x7m

Bizkaia, 86 behea • BERA • Tiroa eta Faxa: 948 631003

FERMIANAK  
TOLDOS BAZTAN



## ITUREN

### Ituren eta Zubietako inauteriak kultur ondare izateko bidea abiatuko du Nafarroako Gobernuak

Horrela iragarri zuen Urtezahar Egunean Corpas kontseilariak herrira egindako bisitan

#### Arkaitz MINDEGIA

Ituren-Aurtitz, Zubietako eta Lantzeko inauteriak Interes Kulturalako Ondasun izan daitezke. Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak abenduaren 31n Ituren iragarri zuenez, bere Departamentuak Ituren-Aurtitz, Lantz eta Zubietako inauteriak Interes Kulturalako Ondasun Materiagabe izendatzeko espedientea abiatuko du, ospakizun tradizional horiek kultur ondare gisa mantentze aldera.

Gisa honetako ospakizunak horrelako prozedura batean sartuko dituzten lehen kasua izanen dira gure inauteriak, Lantzekoekin batera.

Urtezahar Eguneko ekitaldira Pedro Luis Lozano Kultura zuzendari nagusia, Miguel Angel

Petrirena Iturengo alkatea eta Patxiku Mitxelena Zubietako alkatea ere bildu ziren.

Erraten dutenez, Ituren-Aurtitz eta Zubietako inauterietako jatorriari buruzko dokumentu idatzi aunitzik ez dago. Baina belaunaldiz belaunaldi igarotako testigantzek eta XX. mendearen hasierako argazkiek ospakizun tradizional honi eustea ahalbideratu dute.

#### Ibintza Kultur Taldea saridun bila

Ibintza Kultur Taldeak urtarilaren 5ean, Errege bezperan, egin zuen Eguberrietako zozketa. Lehenbiziko saria, zare eder bat, 1.583 zenbakiarentzat izan zen; bigarren saria bainuetxerako bisarrera 1.469 rentzat eta azkenik, hiruga-



ARGAZKIAK: BEATRIZ MIKEO ETA ARANTXA ARIZTEGI

#### Ekitaldiz beteriko Eguberriak

Hutsik egin gabe, baina inoiz ez bezalako bisita egin zuen Olentzerok Ituren. Olentzero karroza baten gainean etorri zen eta Jaiotza biziduna ere egin zen aurtengoan. Etxez etxe giro ederrean ibili ziren iturendarrak. Errege Egunean ere ohiko ekitaldiek ez zuten hutsik egin.

rrena, bi lagunendako afaria Altxunea erretegiaren, 2.579 zenbakiarentzat.

Lehen saria Urrozko Mikel Saldiasek eraman du eta hirugarrena Iturengo Alazne Altxuk. Iturengo Ostatuan salduzako bigarren zenbaki sa-

ritua, ordea, oraindik ez da atera. Zenbakia ateratzen ez bada, zozketa berriro egingen da hilaren 31n.

#### Ipuin lehiaketako bi sari

Abenduaren 20an Malerrekako inmigra-

zioari buruzko Ipuin Lehiaketako sari bana-keta eta berendua egin zen Herriko Etxeko Garbaran. Parte hartu zuten guztien artean, bi sari Ituren eta Aurtitzera etorri ziren, Jabier Sein eta Irati Mindegiak ipuin bana jaso zuten.

**ATM S.A.**



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

**Igantzikoko bentak**  
948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik
- Mantenu rodilloak

**APARAN, S.A.**  
**BOIXOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## MALERREKA

# Zubietako Herriko Ostataua errentan hartzeko eskaintzak larunbata bitarte aurkez daitezke

Hilabeteko errenta 750 eurokoa izanen da

## ttipi-ttapa

Zubietako Udalak lehiaketa irekira atera du Herriko Ostataua errentan hartzeko aukera. Ostataua, hostala eta jate-txe zerbitzuaren errentan hartzeko eskaintzak larunbata, urtarrilaren 24a, baino lehen aurkeztuko beharko dira.

Errentaren iraupena borts urtekoa izanen da eta bertze horrenbertze luzatzeko aukera ere izanen da. Hilabeteko errenta 750 eurokoa izanen da horri BEZaren %16a gehitu beharko zaio.

Iragarkia urtarrilaren 9an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta biharamunetik hasita, hamaborts egun naturaleko epea eman zuten eskaintzak aurkezteko. Beraz, urtarrilaren 24an, larunbat honetan akituko da epea. Lehiaketan parte

hartzeko behin-behineko fidantza 1.500 eurokoa izanen da eta proposamenak udaletxeko idazkaritzan aurkeztu beharko dira.

## Inmigratioari buruzko ipuin lehiaketa

Malerekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, inmigratioari buruzko ipuin lehiaketa egin zen joan den urte akaberan. 50 bat lan aurkeztu zituzten Sunbilla, Ituren, Legasa, Beintza-Labaien eta Narbarteko eskole-tako 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei eta sariak abenduaren 20an banatu ziren Iturenen.

## 6-9 URTEKOETAN SARIAK

6tik 9 urtera bitarte-koetan, lehen hiru partaideek jolas bana eskuratu zuten. **Narbarteko** eskolako Maddalen



UTZITAKO ARGAZKIA

## Urtea akitzeko Mendaurko kaxkora

Erreka Elkarteak, azken urteetako ohiturari eutsiz, kirola eginez eman zion agurra 2008ari. Hala, Urtezahar goizean adin guztietako 70 bat mendizale animatu ziren Mendaurrera joateko eta eta arratsaldean, San Silvestre lasterketa egin zen. Aurreikuspen guztiak gaindituz 124 korrikalarik parte hartu zuten.

Oteizak aipamen berezia jaso zuen lehenengo mailan ipuina aurkeztu zuen bakarria izateagatik. *Txinako bineska* izeneko lana egin zuen narbartearrak. Bere eskolako Alazne Aizpuruk ere jolasa eraman zuen etxera *Mulanen bidaia* ipuinarekin, eta Iturenko eskolako Mikele Etxekolonea **zubietarrak** jaso zuen 6-9 adin tarteko hirugarren jolasa, *Lagun berria* lanarekin.

Hurrengo hiru auketuek ipuina jaso zuten. **Narbarteko** eskolako ikaslea den Fatima El Haourentzat izan zen

horietako bat, *Basma haserre dago* lanarengatik; **Beintza-Labaiengo** Jabier Otxandorenak jaso zuen bertze saria, *Lin eta euskara* ipuina idazteagatik; eta azkena Haritz Bereau **sunbildarrak** eskuratu zuen, *Tiburtzio eta Juan European* lanarekin.

## 9-12 URTEKOETAN

9-12 urtekoetan ere, lehen hiru sailkatuek jolas bana lortu zuten. Horietako bat Duba Saadi **zubietarrarentzat** izan zen. *Bidaiaren itzulera* ipuinarekin aipamen berezia eskuratu zuen. Ho-

rez gain, **Narbarteko** eskolako Belen Encinasek ere jolasa etxeratu zuen, *Mariaren eta Samuelen bidaia* lanarekin, eta **Legasako** Olatz Subizarrek bertze jolasa lortu zuen, *Bi txakur Euskal Herrian* idazteagatik.

Ipuinen irabazleeta-ko bat Jabier Sein **iturerdarra** izan zen *Euskal Herria etorri zen familia* ipuinarekin. *Dora eta Balber* ipuinarekin **Zubietako** Maritxu Sanchezek jaso zuen bertze saria eta *Bidaia zoriontsua* lanarekin **Aurtizko** Irati Mindegia herigarrena.



## MALERREKA

### Negoiazio garaian langile bat kaleratu izana leporatu dio LABek Aparaneko zuzendaritzari

EREa negoziatzeko epea ortzegun honetan akitzekoa da

#### ttipi-ttapa

Doneztebeko Aparan S.A. enpresako zuzendaritzak langile bat kaleratu izana gogor salatu du LABek. Sindikatuaren arabera, «*Aparanek ematen duten arrazoia langile horri ongi formatzeko aukera aunitz eman dizkiola da eta ez dituela aprobetxatu*». LABek, ordea, jokaera hori «*larritzat*» jo du, «*enpresaren egoera kontuan hartuz*».

Enpresakabenduaren 16an, 2009 osorako EREa aurkeztu behar zuela iragarri zien langileei, baina LABen hitzetan, legeak onartzen dituen kontsulta eta negoziatziorako 15 egunak «*langileak oportetan zudelara izan ziren*». Langileen ezezkoarekin, enpresakatzeratu egin zuen baina urtarrilean berriz aurkeztu zuen.

Orain enpresarekin hitz egiten ari dira, eta urtarrilaren 22an akitzekoa

da negoziazio epea. Hain zuzen, negoziatzen ari diren bitartean enpresak langile bat kaleratzea eragin du LABen kritika. Horrez gain, EREaren inguruan enpresak hartu duen bidea ere salatu du sindikatuak.

#### Agenda 21 lanean

Azken pausoak ematera doa Malerrekako Agenda 21. 2007an ekin zion Terra-Prometeako lantaldeak Agenda 21 egitasmoa osatzen duten bi faseetan lehenari: diagnosiari. Diagnostika osatuta, Malerrekaren etorkizunerako garrantzitsuak diren proiektuei forma ematen aritu zirengero. Orain, bada, garrantzitsuak izan daitezkeen proiektuen zerrenda prest dute Terra-Prometeako teknikariek. 57 ekintza zehaztu dituzte eta lehentasunaren arabera ordenatzen ari dira orain.



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Errekaren saskia Donamariara

Argazkian ageri den Donamariako Iban Ezkurrarentzat izan zen Erreka Elkartearen Eguberrietako saskia. Ez nolanhikoa, gibelean duen guztia jaso baitzuen.

#### ESKUALDEA ANTOLATU

Malerrekaren **antolamendua hobetzeko neurriak** hartzea da zerrenda horretako neurri bat, mankomunitate bezala bizkortzea, alegia.

#### KULTURAREN ALDE

**Kultura sustatzea** ere garrantzitsua ikusten dute: kultur teknikaria kontratatu, kultur ekitaldiak elkarlanean antolatu, euskararen erabilera indartzeko neurriak hartu...; horrekin batera, **partehartzea eta elkarlana sustatzearen aldekoak** dira (auzolana, web orri bateratua...).

#### HIRIGINTZA ETA INDUSTRIA

**Hirigintza alorra planifikatu** (etxebizitzaren arazoari aterabidea eman) eta **industria garatzea** heldu diren hirurteetako

helburuen artean daude.

#### HEZKUNTZA INDARTU

**Hezkuntza eta heziketa alorrean** ere hainbat gabezia somatu dira eta **hainbat proposamen** daude: haurtzaindegia edo haur eskola egin; hezkuntzako erai-kinak hobetu; gazteek ikas dezaten motibazioa indartu; etorkinen integrazioaren alde lan egin...

#### ERREPIDEAK ETA INGURUMENA

Bigarren mailako **errepideen egoera** ere hobetu nahi da, eta horrez gain, **Mugikortasun Plana** ere egin nahi da trafikoa arautzeko.

**Ingurumena zainitzearen aldeko proposamenak** ere ageri dira ekin-tzen zerrendan, kaltegarriak diren inpaktuak kon-

trolatuz eta biodibertsitatea zainduz.

#### OSASUNA ETA GIZARTEA

**Osasun eta gizarte zerbitzuak hobetzeko neurriak** hartzea ere lehentasunen artean daude. Horren harira, Gizarte Ongizatearen kontseilua martxan paratzea planteatu da.

#### HONDAKINAK NOLA KUDEATU

**Hondakinak hobeki kudeatzea** eta etxeko **konpostajea indartzea** ere garrantzitsuak dira, baita saneamendua eta ura kontrolatzea ere.

#### TURISMOA ETA MERKATARITZA INDARTU

**Turismoa eta eskualdeko merkataritza eta ostalaritza bizkortu** nahi dira.

Dietetika eta nutrizioa  
Dieta pertsonalizatua  
Naturista kontsulta · Masajeak

Leizako errep. 3 behean | Doneztebe | Tel. 948 451 473 | kimetzbelardenda@hotmail.com

## EZKURRA

# Eskolaren eraikinaren etorkizunak eztabaida sortu du herrian

Herritar batzuek eskatuta, urtarrilaren 10ean bilera egin zen udaletxean

**Fernando ETXEBERRIA**

Eskolaren eraikinarekin zer gertatuko den erabakitako eztabaida sortu da azken aldia herrian. Joan den urtarrilaren 10ean horri buruz hitz egiteko bilkura bat egin zen udaletxean eta 27 lagun elkartu ziren zinegotziekin eta idazkariarekin. Bilkura herritar batzuek eskatuta egin zen. Izan ere, duela hilabete inguru, **Ttipi-Ttapan**, Udalak eskolari buruz egindako proiektu baten berri eman genuen. Eta normalez, batzuek ez ziren ados agertu horrekin, eta horregatik eskatu zuten bilera.

*Ezkurra, Herri Berezi* liburuan agerienez, eskola 1914an eraiki zen. Udaletxeko aktak horrela dio: «eskola egin nahi zen lur eremua ldefonso Etxeberriarena dela jakinarazi zuen udaletxeko lehendakariak... Lur horren eta Aldapako herri-lurraren artean egindako permutaren bidez eginen da salerosketa».



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

**Urteekin eskolaren egoerak okerrera egin du eta nahiko hondatua dago.**

## IKASLE ESKASIAGATIK 1999AN ITXITAKOA

Aipatu liburuan erratenenez, «gaur egun hutsik dago, bigarren solairuko etxebizitza bat izan ezik. Etorkizuna ez da batere atsegina. Herriko gazte gehienak ezkondu eta beste toki batzuetara joaten dira bizitzera, atzerriko familia bat baino ez da kanpotik Ezkurrara etorritakoa. Orain, bada, eraikin hutsari nolako era-

bilpena eman argitu behar da: liburutegia, joku gela, gastronomia elkarte, bisitari eta mendizaleentzako aterpea? Etxebizitzak egiteko saldu? Eraikina bota eta orubea aparkaleku bihurtu?».

Herritarren bilkura interesgarria izan zen eta hainbat proposamen mahaigaineratu ziren. Hurrengo alditan hemen laburtzen ahaleginduko gara.

## Eratsun

Pasa berri den asteburuan izan ziren **Eratsungo inauteriak**. Hilaren 16an afaria egin zuten. 17an karrika eta baserrietan barna ibili ziren puskak biltzen eta Peñagarikano eta Mendiluzerkin bertso-bazkaria egin zuten. Afaria ere izan zuten gauean, eta igandean eman zioten akabera inauteriei, Modesto akordeoilariak alaitutako bazkari batekin.

## INFORMATIKA

## ‘Hurbildu IKT-etar@’ ikastaroetan izena eman daiteke

**ttipi-ttapa**

Teknologia berrietara hurbiltzeko asmoz, aurturaren Hurbildu IKTetar@ programa landuko da hainbat herritan. Halere, ikasturte honetan, aldaketak izanen dira. Aurturaren, Nafarroako Gobernuak hastan hastan ikastaroak eman die lehentasuna, sakontzeko ikastaroen aitzinetik. Horrez gain, lehenago ikastaroak eman ez diren udalerrietara zabaltzea nahi da prestakuntza, eta, beraz, lehenik ikastaroak izan ez dituzten udalerriek lehentasuna izanen dute, baita aitzinetik prestakuntza jaso ez duten ikasleek ere. Doakoak dira eta izena emateko, 012ra deitu behar da, urtarri akabera baino lehen. Hortik aitzinerako Nafarroako Gobernuak kudeatuko du.

**ANZABAL**  
AGENTZIA



- **Zurich Asegurak**  
Autok, etxebizitza, itxipi eta biltza asegurak
- **Lan aholkularitza**  
Nominu eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**  
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**  
Baserri, bontzi, preu, etabi... salmenta eta alkatari
- **Gastoria**  
Bilgaituen transferentziak, goletzako kamelaren bantza eta etxeen gaiko gastuak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

**Lizardi**  
Telekomunikazioak




TDT Instalazioak  
TB Instalazioak (satelite, lurtekoak)  
Instalazio indibidualak eta kolektiboz  
Portero automatikoak  
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720  
pxanlizardi@hotmail.com



# AURREKONTU GUZTIETARAKO

Zure bainu-gela, sukalde, terraza edo zure etxe oso-osorako, **Alkain** prest daukazu beti Hondarribian zure gustu, ideia eta aurrekontuetara egokitzeko.



Multzo osoa **315€**  
(Pareta-argia + ispilua + konketa + altzaria)

Euskaraz  
badakigu



Multzo osoa **360€**  
(Altzaria, 70x35 + konketa + ispilua, 50x80 +  
pareta-argia)

\*Prezio hauek 2008-12-31 arte daude indarrean

 **alkain**  
zeramikak eta bainuak  
C/ Amutalde, 21 • 20280 Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54  
[www.alkain.com](http://www.alkain.com)

## ARESO

# Kirolarientzako beka deialdia zabaldu du Mankomunitateak

Hilaren 30a izanen da eskaera-orriak aurkezteko azken eguna

**Juana Mari SAIZAR**

Eguberiak ahaztuak ditugun eta inauterien zain gauden bitartean, lan urtea hasi da eta Kirol Mankomunitateak beken deialdia zabaldu du herriko kirolari amateurrendako. Eskaria urtarilaren 30a baino lehen aurkeztu behar da.

Bertan kirolariaren datuak, zein motako kirola egiten duen eta gastuak adierazi behar dira. Eskaera orriak udaletxean daude eta bertan bete daitezke.

Bestalde, honekin batera helduendako kirol jarduerak antolatu nahi dira, baina horren berri aurrerantzean edukiko dugu.

## Hotza eta elurra

Azkeneko alean, elurra kentzeko makinaren onurak aipatu genituen, eta horrela da. Baina azken elurtean izugarriko izotzak izan ditugu.

Temperaturarik baxuena urtarilaren 9an izan genuen, eta zero azpitik sei gradu markatu zituen termometroak. Giro-tenperatura horixe izan zen. Hala adierazi zigun Ixabel Gereñonekoak, bertan

baitago eguraldia kontrolatzeko tresneria.

Gatza zabaltzeko tresna eta makinek ezin izan dute izotza kendu, gainean pasatzean plaka gogor eta irristakorra jartzen baitu. Hori dela eta, ikusi da bes-

te tresnaren baten beharreen dagoela herria, eta aurrerantzean hutsune hori moldatzen saiatuko dira. Esaera zaharrak esaten duen bezala, «aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu».



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

## Eskolako haurrak elurraz gozaten

Elurra eta izotza bertatik bertara gozatzeko eta bide batez, kirola egiteko, ateraldia egin zuten eskolako neska-mutikoei Larreko borda aldera. Peru soinetako irakaslearekin egin zuten ibilaldia eta elur-hautsaren gainean eta izoztutako putzuen gainean ere ibili ziren. Eguzkiak ere bere kolorea jarri zuen, argazkian ikusi daitekeen bezalaxe.

## GIZARTEA

## Hezitzaileak biltzeko deia ortziralera Irurtzunen

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkarte Profesionalak deituta, hezitzaileen bilera bat egingen da ortziral honetan, hilak 23, Irurtzunen. Izan ere, elkartearen arabera, bada garaia Nafarroako ipar-mendebaldean lanean ari diren profesionalen lana eta haren gorabehera guztiak ezagutzeko. Horren harira, hainbat jarduera antolatu omen dituzte, elkar ezagutu eta esku artean dituzten proiektu, zalantza eta erronken berri elkarri emateko. Beraz, bilkura, Irurtzungo Kultur Etxean-Elizaren ondoan- izanen da 18:00etan.

ttipi  
ttapa

☎ (0034) 948 635458

**COLCHONES ATSEDEN**  
KOLTXOI FABRIKA

Zure ametsen fabrika

**ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN**  
Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

**BASIC PLANA:** Koltxoia + burukoa: **jaso zure oparia**  
**MEDIUM PLANA:** Koltxoia + somiera + burukoa: **%5eko deskontua**  
**PLATINUM PLANA:** Koltxoia + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoa: **%10eko deskontua**  
**GOLD PLANA:** Viscolaxtic Koltxoia + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoa + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

**12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina**  
[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)  
 Aprobetxatu promozioa, 2009/01/31 arte

Eta finantzaketa gure berritasun, lanegiko prezioetan.

Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • 948 346 000 • Iruñea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA





inauteriak

2009





**Marisol**  
janaridenda

Karrika nagusia, 7  
Tfnoa: 948 450 008  
SUNBILLA

**ITTURBURU OSTATUA**

*ecogi pasa inauterietan!*

Nagusia, 23 - SUNBILLA - 948 451 703

INGI PASA INAUTERIARIKI!

**ALTZURI**

MENDI LANAK • ESKABAZIOAK • GARRAIOAK  
GARBITZE MEKANIKOAK • ZERRAKURAK

Leku-Eder, Buntitz • 31791 Sunbilla (NAFARRUA)  
Tel./Fax. • 948 450 504 • 459 867 287 • 499 467 394  
altzuri@yahoo.es

**IRURI**   
**MOTOR** 

Aukerako autoak  
4x4 autoetan modelo guztiak  
Salerosketa zerbitzua  
Furgonetak  
Iruña-Irun errep. zaharra - SUNBILLA  
Tfnoa: 948 450 399



**SUNBILLAKO  
UDALAK**

**Inauteri zoriontsuak  
opa dizkizue sunbildar  
eta bisitari guztioi**



Bertze urte batez, jende andana bilduko da Sunbillan igande honetako karrozen desfilea ikustera. Baina karrikaratuko karroza ikusgarrien gibelean, ordu eta egunetako lana dago. Jendearen ikusmira sortzen dute, bai, baina aitzinetik lan haundia egin delako. Igande honetan ere, ikusleek izanen dute zerekin gozatu, eta gainera, hotzari aitzin egiteko zerbait hartzeko aukera ere izanen dute. Horretarako espresuki hiru karroza egiten ditu herriak, gainerako karrozei bidea zabalduz.

Guztietan lehena tortilla pintxoena izaten da. Eta halako jendetzari zer eskainia izateko tortilla dezente egin behar dira. Jexux Mari Jorajuria sunbildarra antolatzaile lanetan ibiltzen da eta berak argitu digu zenbat arraultza erabiltzen dituzten: *"140 dozena erosten dira eta horiez gain, gazteek eskean ibiliz biltzen dituztenak ere horretarako izaten dira"*. Goizean goiz elkartu, eta tortillak egiteari ekiten diote. Halaxe izanen da igande honetan ere. Desfilearen momentua ailegatuta, zazpi bat lagun ariko dira lan honetan.

Salda beroa eskaintzen duen karroza izaten da hurrengoa. Eta hemen ere litro aunitz. *"350-400 litro inguru"*, azaldu digu Jorajuriak. Horiek egiten bezperan hasten dira. Egun haundian, berriz, 6:00etan elkartzen dira eta salda berotzen paratzen dute.

Ordu berean, 6:00etan, opilak egiten hasten dira 12-14 lagun. Eta zenbat opil egiten ote dira? Jorajuriaren hitzetan, *"600 inguru"*. Ez da gutti, ez horixe. Opilak joan ohi diren karrozan, gaztainak ere eskaintzen dira, Auloa baserrian erretakoak, eta ardo beltza ere hor ematen da, *"150 litro ardo"*.

Bakoitza berean, baina igande honetan, 11:30ean desfilea hasten denarako, dena prest egonen da.



**Ortizal eta larunbatean ere ekitaldiak**  
Igandea inauterietako azken eguna da Sunbillan. Baina aitzinetik ere egun mugituak izaten dituzte. Hala, ortziral goizean, herriko mutil gazteak elkartu eta baserri baserri ibiltzen dira puxkak biltzen; bazkalondoan, berriz, jauntzeko prest dauden mozorroak paratzen dituzte haurrek; eta gauean, emakumeek, mozorrotuta, afaria izaten dute Ulibeltzak Elkartearen.

Larunbata lasaiagoa izaten da herritarrentzat, baina mutil gazteek herriko etxez etxeko eskeari ez diote hutsik eginen, eta gauean besta pixka bat egin nahi duenak ere izanen du aukera.





## URTARRILAK 23 ostirala **baserriak**

**9:00** Gazteek gosaria, ondotik baserrietara joanen dira. **Eguerdian** Bazkaria Ixtola eta Exkerneko borda baserrietan. **Arratsaldean** Herriko haurrentzako txokolatada Ulibeltzak elkarteetan. **16:00/18:00** Musika Agerralderekin. **20:00/22:00** Dantzaldia Agerralderekin arkupeetan. **21:30** Eskean dabilzan gazteen afaria. **Gauean** emakumeen afaria Ulibeltzak elkarteetan, **ondotik** sorpresa eta dantzaldia AGERRALDerekin.

## URTARRILAK 24 larunbata **karrika**

**10:00** Gosaria Itturburu ostatuan. **Ondotik** Karrikaz karrika eskean ibiliko dira Modesto eta Joxe Angelekin. **14:00** Eskean dabilzanentzat bazkaria Fonda ostatuan. **20:00/22:00** Dantzaldia Modestorekin udaletxeko arkupeetan. **Gauean** Afaria Elor-txurin.



## URTARRILAK 25 igandea **karrozak**

**11:30** Karrozen desfilea Galtzagorri txarangarekin, opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko dira ikusleen artean. **Ondotik** Zerri eta bildots zozketa. **14:30** Bazkaria Ulibeltzak elkarteetan. **Ondotik** Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.



## MARIA JESUS HARATEGIA



ongi  
pasa

Karrika Nagusia, 1  
SUNBILLA  
T. 948 451 530

Tel: 948 450 773  
Mugikorra: 610 418 059  
Auloa Baserría - SUNBILLA

ongi pasa inauteriak

# ESPELOSIN

eraikuntzak

# ONGI PASA HERRIKO INAUTERIAK!



eskabazioak

# SASOI

Telf.: 948 451 596 • Faxe: 948 456 168  
e-posta: info@sasoi.es • 31791 - SUNBILLA



# LEITZA

**Aliprox**

Udazgorria · Udazgorria · Udazgorria · Udazgorria

Tel: 948 510 007 - 948 510 657 ongi pasatze inauterietan!  
Elbarren, 20-71

**ARRARAS**  
edariak, s.l.

ONGI PASA ISIAUTEAK

Eluseder industrialdea. 1 - ARESO - 948 61 08 88

**MAIMUR**

Herriko Plaza LEITZA  
Tfnoa-Faxa: 948 510 148

· Prentsa · opariak · testu liburuak  
· Plastifikatzeak · enkuadernatzeak  
· Inprenta lanak · fotokopiak

**IRUSO**  
Ostala  
Aldaketa LEITZA  
Nafarroa  
T. 948 513 038  
M. 608 513 204

ONGI PASA ISIAUTEAK

**AMAIA arraindegia**

Eibarren, 72 LEITZA  
948 510 590

**Olata**  
**Bazar**

ONGI PASA ISIAUTEAK

LEITZA - Eibarren, 26-27 Auzoa - 948 510 427

**TXOKO**  
taberna

Pintxoak Otartekoak  
ongi pasatze inauterietan

Eibarren, 22 - LEITZA - Tel. 948 510 227

**ARAKINDEGIA**  
jatetxea

Menua · Karta  
gariari gariako otorduak

Eibarren, 42 - LEITZA  
Tfnoa: 948 510 052 - Faxa: 948 510 633

Iturenen, Aurtitzen eta Zubietan hasiak direnean eta Sunbillan hasteko egun falta denean abiatuko dira Leitzako inauteriak, larunbat honetan, alegia. Herri bakoitzak bere berezitasuna du eta Leitzak ere badu berea. Etxez etxeko eskeaz gain, mozorro besta haundia izan ohi da Leitzan, eta gainera, adin guztietako jendeak atontzen ditu mozorroak. Halere, Leitzak badu bertze berezitasun bat: atsaureak. Igandean herritar edo kuadrilla bakoitza bere gisara jauzten bada ere, asteartearekin denak bat egingen dute Atsaureen Egunean.



Urtetan desagertua egon ondok, joan den urtean berreskuratu zuten leitzarrek atsaureen jantzia, soinekoa eta kapela edo buruko berezia duten mozorroak. Eta aurrean ere bestak ez du hutsik egingen. Denak berdintsu jauntzita aterako dira kalejiran astearte arra-tsaldean. Desberdintasun bakarra norberak bere burukoari eta soinekoari ezarritako apaingarriak izanen dira. Azken aste hauetan, leitzarrek buru-belarri ibili dira prestaketa lanetan, eta kapela nola diseinatu ikasteko ikastaro bat egin zuten duela bi aste.



Prestaketak prestaketa, dagoeneko berandu da. Egunak gairenean daude eta orain lanak aldera batera utzi eta ongi pasatzeko momentua ailegatu da.





## ILBELTZAK 24 larunbata

- 14:00** Eskalaraien **BAZKARIA AURRERAN** dohan  
**16:00** Eskea herriko etxeetan, **trikitolariak, gaiteroak, txistulariak eta atxauretuak...**



## ILBELTZAK 25 igandea

- 12:00** Atsaurek **Incansables Txaranga**-rekin plazatik aterako dira, **GUR-DIAK** ohiko lekutik, industrialdetik.  
**12.00** Txu txu trena herrian barna.  
**14.30** Atsauren herri bazkaria.  
**16.00** Txu txu trena herrian barna.  
**18.00** **Incansables Txaranga**rekin Kalejira eskoletatik.  
**18.30** IKA eta Bertso Eskolak antolatutako **BERTSO JAIALDIA ZINEN: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Julio Soto, Diego Riaño.** Gai Jartzaila: **Jainkoa.**  
**19.00** LAIOTZ taldea Karrapen.  
**23.30** LAIOTZ taldea Karrapen.  
**ondoren** **Incansables Txaranga.**

## ILBELTZAK 26 astelehena

- 9:00** **Baserritako eskea:** Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka ra puske-biltzea, herriko txistu lari eta **Incansables Txaranga**-rekin.  
**16.00** Umeentzat **puzgarriak** amazabal pilotalekuan.  
**19.00** GAU-BELA taldea Karrapen.  
**23.30** GAU-BELA taldea karrapen.  
**ondoren** **Incansables Txaranga.**

## ILBELTZAK 27 asteartea

- 9:00** **Baserritako eskea:** Erasote auzora.  
**11.30** Umeentzako ekitaldia.  
**14.30** **Aurrera** elkartean **bazkaria.**  
**16.30** Ume eta gaztetxoek **kalejira Incansables Txaranga**rekin.  
**ondoren** **Txokolatada**, buru handiak, musika plazan eta goxokiak banatuko dira.  
**18.30** Garai bateko **ATSAUREN** kalejira.  
**19.00** GAU-BELA taldea karrapen.  
**23.30** GAU-BELA taldea karrapen.  
**ondoren** **Incansables txaranga.**

**JAI-ALAI ostatua**  
 Tfnua: 948 510 735 - Faxa: 948 510 736  
 www.jai-alai.es - info@jai-alai.es

**SAGASTI JATETXEA**  
 Ongi pasa ihoteak!  
 Elbarren, 98 - LEITZA - ☎ 948 610 637

**PERITZA TABERNA**  
 LEITZA - 948 610 848  
 ongi pasa ihoteak eta txintxo ibili

**KIDE**  
 aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomiak
- Enpresen sorrerak
- Auzen transferentzia
- Errenta alborpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak!

LEITZA: Landa Ind. Suizi 3 • T: 948 510 990 F: 948 510 429  
 DONOSTIA: Bergara 23-1go Erk • T/F: 943 42 03 48

**ONGI PASA IÑOTEAK**  
**MUSUNZAR OSTATUA**  
 • Jatetxea  
 • Logelak  
 Elbarren, 14 - Tel: 948 510 607 - 948 510 475  
 LEITZA

**HARATEGIA-VRDAITEGIA URKIOLA**  
 Elbarren, 94 - Tfnoa: 948 510 467  
 Elgoien, 6 Tfnoa: 948 510 747  
**IÑOTE ZORIONTSUAK IGARO**





# ITUREN, AURTITZ eta ZUBIETA

**Pitti**  
ESKABAZIOAK S.L.  
616 513 491  
www.pittieskabazioak.com

**DISFRACES LA MASCARA**

- Inauterietako mozorroetan denbena daukagu
- Era guztietako osagariak saltzen
- Makillaje profesionala

mascara@cin.es  
**www.lamascara.es**  
Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA

Asteburuetan, besta egunetan eta bezperatan irekia.

**ALTXUNEA ERRETEGIA**  
ITUREN

**INAUTERIETAN IREKIA**

Tfn: 948 450 410

**Eider Ilepaindegia**

maiztasun 3 euroa, 5 euroa, 8,33 euroa  
Luzeratasun 3 euroa, 4 euroa

ittuna naizemua  
Tel: 948 45 13 38

**ONGI PASA INAUTEAK**

**I LEPAINDEGIA**

**MADERAS SANTESTEBAN**

**ZERRATEGIA**

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilatutako egiturak
- Osagariak
- Autoklabe tratamendua
- Montaje obran

**ZUBIETA • 948 450 877**

Joare soinuak ez dabiltz urruti, gain-gainean baitaude Ituren, Aurtitz eta Zubietako inauteriak. Ortzegun honetan, joaldunek eginen duten lehen puxka biltze eta afariarekin hasiko dira. Larunbatean segituko du bestak, asteazkenera arte atsedenik gabe eta hurrengo larunbateko Kontuen Eguna izanen da inauterietako azkena.

Guztia prest edukitzeko, ordea, joan den urtean hasi zituzten prestaketa lanak. Iturenen, erraterako, Eguberri aldera, lehen bilera egin zuten, eta aitzinetik, San Martinetan, egun hauetako jakia izaten den aretzearen bila hasi ziren. Inauterietako Batzordea da guztiaren arduraduna, eta Pello Ariztegi da kideetako bat. Inauteriak ailegatu aitzinetik dauden eginbeharrak azaldu dizkigu: *“aretzea bilatu –normalean Zubilleneko borda baserrian harrapatzen dugu–, sukaldarien bila ibili, erosketak eta menuak egin, kontuak egin, aizkolariak eta bertsolariak lotu...”*

Eguna hurbildu ahala otorduetan izena emateko zerrendak zabaltzen dira, eta ez dira ez gutti izaten biltzen direnak: *“Kontu Egunean 100 bat lagun, gosarietan 50-60 lagun...”*. Aurten ere, seguru halaxe izanen dela. Iturendar, aurtiztar eta zubietarrak, behinik behin, desiatzen daude bategatik bertzera joareak astindu eta moztzeko.



## Inauteriak herritarrenak

Inauteriak *“gureak”* dira. Horrela azpimarratu digu Ariztegi. Barrenbarrenetik bizi dituzten ospakizunak baitira. Dena den, astelehen eta asteartearekin jende andana hurbiltzen da kanpotik joaldun eta moztzeko ikustera. Kritikak ere eragin izan ditu egun horretan moztzeko publikoari gauzak botatzeko duten ohiturak, Baina, Ariztegi eta bertze hainbat iturendar, aurtiztar eta zubietarren hitzetan, *“inauterietara etortzen denak badaki zer dagoen. Bertze gisa bateko inauterietara ohituak daude, baina hemengoak ez da maliziarekin egina edo min egiteko”*. Argi dago, inauteriak berezi sentitzen dira hiru txoko hauetan, eta bereziak sentiarazten dira inauterietan. *“Eta hori onartu behar da”*.





Urtarrilaren 24an Joaldunek egingen duten lehen puxka biltze eta afariarekin hasiko dira Iñauteak Aurtitz, Ituren eta Zubietan.

Larunbatean izanen dute segida, afaria eta dantzaldia egiten baita egun horretan. Igandean, jantzi osoa paratuz lehen ibilaldia egingen dute joaldunek karrikaz karrika.

## URTARRILAK 26 astelehena

Zubietako joaldunak mozo-  
rro eta karrozek lagunduta  
Aurtitzarrei bisita egingen die-  
te, herriari bira eman eta sal-  
da beroa hartu ondotik **Itu-  
renera** joanen dira.

Lasagako Zarandia parean,  
denak elkartu eta herriari  
buelta emanen diote.

Joaldunek aperitiboa hartzen  
duten bitartean, plazan kar-  
roza bakoitzak bere ikuski-  
zuna egingen du.

**Eguerdiaren 15:30ak al-  
dera**, bakoitza bere herrira  
itzuli eta **bazkaria** izanen du-  
te elkartean.

**Gauean** ordu tikiak arte  
bestak segituko du.



## URTARRILAK 27 asteartea

Ituren, Aurtitz eta Lasagako  
joaldunek bisita bueltatuko  
diote Zubietarrei.

Urtero-urtero, batzuen ustez  
natura ernatzeko eta uzta ber-  
ri eta ugariak emateko egi-  
ten den ohiturari eutsiz.



## URTARRILAK 31 OTSAILAK 1

**Kontuen eguna** izaten da,  
hain zuzen, Iñauteetako az-  
kena. Egun horretan ez da jo-  
ararik jotzen. **Zubietan** aste-  
akenean egiten dute. Iñau-  
teak akitu eta hurrengo la-  
runbatean egin ohi da Iture-  
nen eta **Aurtizen** igandean.  
**Iturenen** bazkaria izaten du-  
te Herriko Etxean. Bazkaldu  
aitzinetik herriko dantzariak  
bertsolariak eta aizkora apos-  
tua izanen dira herriko pla-  
zan.

**Bazkaldu ondotik dan-  
tzaldia** izanen da eta, moz-  
korraldia izugarria ez bada,  
bederen, bestarekin segitze-  
ko aukera dago, **afari** eta dan-  
tzaldian.

**Aurtitzen** xaharren afaria  
egiten dute eta Iturenen kon-  
tuen afaria, iñauteak heldu  
den urtera arte agurtuz

**Herriko Ostata**  
ITUREN

Landa etxea  
2 uhateko  
3 logelarekin

Herriko Plazan  
948 451 430

ONGI PASA INAUTERIAK

Etxeko Ardi  
Gazta

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

**ERRANDONEA**  
OSTATUA

INAUTERIETAN  
GIRO  
PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

**AURTIZKO**  
**OSTATUA**

Aurtiz Auzoa - ITUREN (Nafarroa)  
Telefona 948 451 625

ESPEZIALITATEA  
HARAGI ERREA  
ARRAI FRESKOA  
Sagardolegiko  
menua 20€



**M INDEGIA**  
ZURGINDEGIA

ATEAK • TARIMAK  
ESKAILERAK  
SUKALDE MOBLEAK  
TEILATUKO ZURA  
LEIHOAK • KONTRALEIHOAK  
ZURGIN LANAK OROKORREAN

*eskatu aurrekontua konpromezunik gabe*

ONGI PASA INAUTERIAK

Leitzako Errep. 27km - AURTITZ  
T.948 451 906  
carpi.mindegia@yahoo.es





## ARANO

### Herriko txikienek 2009rako etxeko lanak egin zituzten urtea amaitu aurretik

Ohi bezala, San Martinak antolatzeko erabiliko da Eguberrietan bildutako dirua

#### Ainhoa ANSA

Gabonak atzean utzi eta inauteriak atean ditugu berehala! Hala ere, inauteriak bezain gertu ditugu oraindik Gabonak. Herrian ospatzen diren jai askok badute euren artean lotura, eta Olentzero eguneko etxez etxeko kantusaioa, Urtezahar Eguneko festatxoa eta San Martinak lotu nahiko genituzke honekin.

Abenduaren 24an, belarrez betetako Olentzero bizkarrean hartu eta herriko gazte eta haurrak, zenbait guraso ere tartean zirela, baserriz baseri ibili ziren goizetik eguerdira bitartean. Jendeak beso-

ak zabalik hartzen ditu kantari txikiak eta poltsa eta saskitxoak diruz eta jakiz bete-beterik ekartzen dituzte bueltaren bukaeran.

Ez da alferrik izaten herriko txikienernekea, izan ere, poltsa horretatik ordaintzen dira urte amaierako San Martin eguneko ekitaldiak (pailazoak, ipuin kontalaria, bertsolariak eta talo eta gaztaina jate herrikoiak...), eta horregatik, esker ona erakusteko, Kontzeju tabernak ere txokolatada bikaina antolatu zuen Urtezahar Egunean, arratsalde-iluntze aldera. Herriko haurrak eta hauen gurasoak urteari elka-



ARGAZKIA: ARANTXA ANSA

Olentzero bizkarrean, baserritik baserrira ibili zen herritar kuadrilla.

rrekin adio esateko bildu ziren, nahiz eta gauerdia baino ordu batzuk lehenagotik izan. Baita giro ederrean bildu ere, dena noski, gazte eta haur hauen lanari eta herriko borondatedun jendeari esker. Eskerrik asko hemendik denei!

Beraz, aranoarrak pozik egon daitezke, aurtan ere, San Martin jaia ospatzeko aurretik lan egin baitute herriko guraso, gazte eta txikienek!

Urteari begira jarrita, ez dira asko herrian izaten ditugun ospakizunak. Halere, ospatzen



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Egutegiak salgai

2009ko egutegiak salgai daude, 5 euroan, herriko hiru tabernetan: Kontzejun, Perurenan eta Benta Berrin. Argazkian ageri dena egutegian aurki daitezkeen irudietako bat baino ez da.

ditugun gutxi eta on horiek denon artean anto-

latu eta gozatzea, ez al da ederra?

**edredoi fundak**

**albornoak**

**edredoi nordikoak**

**ohe estalkiak**

**maindireak**

**mantelak**

**kuxinak**

**toailak**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Urtarrilaren 15etik aurrera**

**MERKEALDIA • ASTE TXURIA**

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

## GOIZUETA

## Krisiak baldintzatutako aurrekontuak onartu ditu Udalak 2009rako

lazkoa baino 200.000 euro gutxiagoako diru-sarrerak eta gastuak aurreikusi dira aurtengo

### Esteban AROTZENA

Beste hainbeste sektoreri bezala, pinuaren salmentari ere ikaragarri eragin omen dio krisiak. Pinuak sortzen dituzenez herriko diru-sarrera haundienak, aurtengo udal aurrekontuak aipatutako egoerak erabat baldintzatu omen ditu.

1.210.880 euroko gastuak eta diru-sarrerak aurreikusi ditu Udalak 2009rako, iaz baino ia 200.000 euro gutxiago. Inbertsioak murriztera jo du Herriko Etxeak kontuak koadratzeko.

Diru-sarrerei buruz, esan, menditik 400.000 euro jasotzea espero dela krisiak krisi; Nafarroako Hazienda Publikotik 168.000; eta herriko zerga eta tasetatik 150.000 euro, besteak beste. Gastu orokorra, hainbat inbertsio eta langileen soldatak dira bestalde, diru-partida haundienak gastuei dagokienean.

Aipagarria zalantzarik gabe, urteabukatu au-

rretik onartu direla, inoiz ez bezala, aurrekontuak, abenduaren 30ean egin baitzen plenoa. Bi udal taldeen baiezkoa jasozuten gainera.

### 144.000 euro Madrildik

Krisi ekonomikoari aurre egin eta enplegua sustatzeko 8.000 milioi euro iragarri ditu Zapateroren Gobernuak udalerrietan, eta dirutza horretatik 144.000 euro gure herriak jasoko ditu. Aurtengo urtearen barranean burutu behar dira obrak eta Udalak erabaki du zertan erabiliko duen laguntza hori: Olaberrietik Maleneko zubia bitarteko bidea pasealeku bihurtuko da laster. Ederki aski hormigoitua eta argizatua gainera.

### Dantzarietzako dirulaguntza

Umore Ona Dantza Taldeari 1.100 euroko dirulaguntza eman berri dio Udalak. Iaz egindako



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Aizkorbe eta Antton txapelkun Burlatan

Beste garaipen bat eskuratu zuen bikote honek abenduaren 21ean Burlatako txapelketa irabazita. Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxeak —argazkia— 18 eta 14 irabazi zieten Arrasateko (Gipuzkoa) Llodio eta Muruari.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Elurra eta hormaren kontra gogotik lanean

Iaz Udalak erositako elurrak kentzeko kutxilari eta gatza zabaltzeko tresnari etekin bikaina ateratu zaie dagoeneko aurtengo neguan. Makinei eta batez ere suhiltzaile bolondresen lanari esker, elurrak eta hormak sortzen duten arriskurik gabe ibili ahal izan da baserrietako bideetan.

hainbat ekitalditan (Lantzeko inauteriak irudikatzea, Amabirjinetako emanaldia...) eta jantzi berrien erosketetan taldeak gastatu duenaren erdia da Herriko Etxetik

jaso duena.

### ETB1eko Kalaka saiora

Kultur Taldeak antolatzen dituen ekitaldi eta rako dirua biltzeko, otsai-

laren 4an ETBko Kalaka saiora publiko gisa joateko deia egin du taldeak. Horretarako, ilbeltzaren 31 baino lehen eman beharko da izena Urruti-  
nean edo Amaiarenean.

**Plakodur**  
Etxeak eta Plakodur

Eskainia edo plakodur egirikoa mola gutxiatoko lanak

Sabaraik • Paraisak • Altzaria • Isurmenburak  
Suaren karrakak Sabaraik

info@plakodur.com • 943 208 544  
[www.plakodur.com](http://www.plakodur.com)

**Ibon Urtiaga**  
fisioterapia zentroa

- Masaje lasaigarria
- Elektroterapia
- Kirol masajea
- Bizkarreko mina
- Kirol eta lan lesioak

Tfno: **948 250 221**  
**606 266 077**

Erietokieta kalea 9 behea. 31007. Iruña



## LEITZA

# Larunbatean hasi eta asteartean bukatuko dira inauteriak

Aldizkariaren gehigarrian aurkituko dituzue xehetasunak

### Asier IMAZ

Inguruko beste hainbat herritan bezala, egun gutxi barru hasiko dira inauteriak gurean ere. Zehazki, larunbat honetan. Asteartera bitartean haur, gazte zein helduek izanen dute gozatzeko aukera. Xehetasunen berri aldizkariaren gehigarrian aurkituko duzue.

### Herriko aizkolariak lanean

Herrian aizkorarako dagoen afizioa ezin da ukatu, eta aizkolari ugari dago. Horietako batzuk Nafarroako bigarren mailan daude eta hori da Jon Rekondoren kasua. Abenduaren 27an, Arbizun finala jokatu zuen eta bostgarren gelditu zen, irabazlearengandik 3 minutu eta 12 segundora.

Maila hori galtzeko oraindik borrokan segitu beharko duten herriarrak ere badira eta horretan dabilta Xanti eta Arkaitz Olano. Nafarroako II. Maila ez galtzeko saioa ilbeltzaren 31n jokatu da Iturenen eta han izanen dira bi hauek. Eurekin batera, Jon Telletxea (Beintza-Labaien) eta Esteban Pikabea (Geren-dian) lehiatuko dira.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

### Hiru Errege Magoen bisita

Urtero bezala, Hiru Errege Magoak bisitan etorri ziren hilaren 5ean. Aurreko egunean pajeak plazan egon ziren eskutitzak jasotzen, eta horrela, bihar-munean Erregeak etxez etxe opariak banatzen ibili ziren. Zintzarri jotzea ere ospatu zen, izpiritu txarrak uxatu edo Erregeen etorrera iragartzeko.



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALTA

### Erremonteko binakako txapela lortzeko bidean

Lehen Mailako bere lehen txapela janztetik bi tantora gelditu zen Iñaki Agirre *Gaztelu* urtarrilaren 11n, Hernaniko Galarretan jokaturako Erremonteko Binakako Txapelketan. Ezkurra doneztebarrarekin osatu zuen *Gaztelu* bikotea –gorriz– eta Urriza eta San Migel saldiastarrak 40 eta 38 irabazi zieten.



## PERTSONAIA

Inaxio PERURENA

## Oraingoan ezin 295 kiloko harriarekin

Bi saiakera egin zituen harri-jasotzaile leitza-rrak Asteasuko pilotalekuan Urteazhar Egunean, baina ez zuen 295 kiloko harria garaitzerik lortu. Saioarean aurretik katarro baten ondorioz nahiko malkuduta egon zela adierazia zuen, eta azkenean ezin izan zuen ametsa bete. Urteik urtera harri pisutsuagoak jasotzeko erronka egina dio bere buruari, eta hala, joan den urtean, egun eta toki berean, 290 kilokoa berdindu zuen, nahiko erraz gainera. 295ekoarekin bidean geldituta, lasaiago hartu beharko du orain 300ekoa jasotzeko bere ametsa. Iñaki aitaren marka (320 kilo) edo Mieltxo Saralegirena (329 kilo) hobetzeko bidea gelditzen zaio oraindik, baina lanerako gogoz ikusten zaio.

gaztelu sol  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
Telefonoa: 948 510 066 • 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

POTTOKI  
Baztanberr Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZOND0 (Nafarroa)  
Telefonoa: 948 561 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com  
Astelehenetik  
larunbatera  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

## BAZTAN

# Aurrekontu faltagatik urtebete edo gehiago gibeleratuko dira Irurita-Elizondo saihesbideko obrak

Errepide berriak sei kilometro izanen lituzke

## Maite OTEIZA

2009an hastekoa zen Irurita eta Elizondoko saihesbidea urte bat edo urte eta erdi gibeleratuko da. Horrela jakinarazi du Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak. Horren arrazoia aurrekontu falta omen da. Zati hau 2002-2009ko Nafarroako Errepideen bigarren plan zuzentzailearen barne dago, Iruña eta Lapurdi Belaten barna lotzen dituen sarea kokatua eta Oronoz-Mugairin eta Arraiozen eginak diren saihesbideei segida emanez.

Saihesbide berri honek Arraiozetik abiatuz, Irurita, Elizondo eta Elbeteko herriak saihestea du helburu, Elbete gainekoaldean ateraz. Sei kilometro izanen lituzke.

## Elizondoko inauteriak egunez aldatuak

Herritar talde baten proposamena onartuz, aurten Elizondoko inauteriak, astelehen eta asteartean izan beharrean,

aitzineko astebururatsatu dira.

Parte-hartzea gero eta tikiagoa zela-eta, data aldaketa horrekin ospakizunak berpiztea da helburua. Horrela, haurren desfilea ortzileri arratsaldean izanen da eta gazte eta helduen eguna larunbatean.

Inauterietako asteartea, Baztanen besta da eta Arizkun eta Erratzu dira, egunak errespetazen dituzten bakarrak.

Espero dezagun, Elizondoko erabaki honek ez eraginik izatea Baztango besta egutegian.

## HASI DIRA INAUTERIAK

Eguberriak pasatuta, eskualdeko inauteriak hasi ziren. Orabidea, Aniz eta Berroetako inauterien ondotik, gainerako herrietakoak segidangan dira, eta haien artean Orakunde, Oilar Dantza edo Egun Ttuntun egunak ospatuko ditugu.

## Erakusleihorik ederrena

Elizondoko Azken Muga arropa-dendare-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

## Bazterketa politika egitea leporatu dio Baztango Ezker Abertzaleak Udalari

«Udalak eramaten duen bazterketa edo apartheid politika salatu nahi dugu». Halaxe adierazi zuen Baztango Ezker Abertzaleak Eguberrietako itxialdiaren ondotik egindako agerraldian. Hauteskundeak egin eta urte eta erdi, 676 baztandarrek egindako aukera politikoari «muzin» egin izana kritikatu zuten. NaBaiko Miguel Angel Garaioa eta UPNko Miguel Angel Aldea «diktaedurak inposatutako» zinegotziak direla nabarmendu zuten, eta «ez direla herritarrek hautatuak». Ezker Abertzaleak aurkeztutako mozioak erantzunik gabe gelditu direla ere leporatu zioten NaBai eta UPNri eta horien artean batzuk aipatu zituzten: Patxi Urrutia eta Juan Jose Petrikorena atxilotu zituztenean aurkeztutakoak, Ernesto Prat atxilotzerat etorri zirenean aurkeztutakoa, Foruzaingoen komisaldegia inauguratu zuten egunean zenbait gaztek jasandako isunetaz eskatutako babesari buruzkoa, «gauetz eta barkarik etxera bueltan gaki zela Arizkungo gazte bati Foruzaingoak emandako jipoiaren» harira aurkeztutakoa, «indar polizialen errepresioa jasandako hainbat baztandarren senitartekoei udal ordezkarietara bilkura bat egiteko eskariarekin osatutako mozioa»... Bertzalde, ordenantzen batzordean parte hartzeko ez gonbidatu izana ere salatu zuten, nahiz eta urrian, NaBaik «hiru alderdi politikoetako (NaBai, EAE-ANV eta UPN) ordezkariak mahai-inguruan jarriko zirela adierazi». Azaroan egindako lehen bilkuretarako ez omen zien inork deitu eta UPNk legez kanpoko alderdiekin Batzorde horretan lanik ez zuela eginen erran izana ere kritikatu zuten. Hau guztia Eguberrietan egindako 17 orduko itxialdiaren ondotik adierazi zuen Ezker Abertzaleak. 30 bat lagun elkartu ziren udaletxean.

na izan da 2008ko Eguberrietako Baztango erakusleihorik ederrena. Bertan Merkatarri eta Komertzianteen Elkar-teak abenduan egindako erakusleio lehiaketan, epaimahaiak Azken Mugarena aukeratu zuten parte hartu zuten 21 komertzioaren artean. Bigarren saria Artesia-

garentzat izan zen eta hirugarrena Malkorarentzat.

Bertzalde, Eguberrietako Fideltasun Kantepainako zozketa ere egin zuen urtarrilaren 9an Bertanek. Aldi honetan, 64 bazkidek hartu dute parte, eta sari-tuak ere bertze horrenbertze izan dira.

## Elizondarren iritzi bila

Xabi Torres Elizondoko alkate berriaren eta bere lantaldearen helburuetako bat herritarren ideiak biltzea da, Elizondon dauden beharrak jasotzea. Hala, urtarrilaren 21ean eta 28an kargodun bat egonen da Herriko Etxean (17:00-20:00).

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

HEKAINO  
ETXERAKO  
EDANTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559342319  
Mugatu eta Yéromique  
SARA

Eskisaroi  
Jaiak  
Jaime Urrutia  
Tfona: 948 580 013  
ELIZONDO

Gierresenea  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Barrutik auzas - Tfoa: 948 582 043  
ORONÓZ · MUGAIRI



## BAZTAN

## FLASH

# Elbete da alkaterik gabe segitzen duen Baztango herri bakarra

Zazpi alkate berrik hartu dute datozen bi urtetarako kargua

### ttipi-ttapa

Hirugarren saiakera egin beharko dute Elbeten alkatea aukeratzeko. Joan den abenduaren 20an egin ziren 15 herrietako alkateak aukeratzeko hauteskundeak eta lehenbiziko deialdi hartan bederatzi baino ez ziren izan euren ordezkaria hautatu zuten herriak: Aniz, Arizkun, Azpilkueta, Berroeta, Elizondo, Erratzu, Irurita, Lekaroz eta Ziga. Bertze bortzek bigarren deialdian aukeratu zuten alkatea, Amaiur, Almandoz, Gartzain, Arraioz eta Oronoz-Mugairik, alegia.

Elbete bakarrik gelditu da ordezkariarik gabe eta hirugarren saiakera egin beharko dute, norbait animatzen den ikusteko. Herrietako alkateak bi urtetik behin aldatzen dira. Baina Elbeten kasuan, aitzineko aldiaren ere, hiruzpalau saialdi egin arren, alkaterik gabe gelditu ziren. Jose Antonio Muñoz izan da Elbetek eduki duen azken alkatea.

### ZAZPI ALKATE BERRI

Azken hauteskunde hauen ondotik, zenbait herrik alkate berria izanen dute heldu diren bi urteetan. Amaiurren Julian Rekaldek hartu du kargua, Erratzun Juan Jose Bidartek, Arizkun Juan Cruz Iriartek, Elizondon Xabier Torresek, Gartzainen Jose Luis Elizegik, Arraiozen Sotero Etxandik eta Anizen Asier Maritorenak.

Alkate lanean bertze legegaldi batez segitzen dutenen artean, berriak, Azpilkuetako Jon Alkasena, Lekarozko Javier Elizalde, Iruritako Pello Obregozo, Oronoz-Mugairiko Bittor Elizagoien, Zigako Pablo Zenoz, Berroetako Arantxa Zozai eta Almandozko Luis Roldan daude.

### 20.000 euro euskararentzat

Udalak argitaratu dituen euskararentzat lan egiten duten komunikabide edo erakundeetarako emanen dituen lagun-

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA	
Herrietako alkateak bi urtetarako izendatzen dira. Batzarkideak eta bokalak lau urtetik behin aldatzen da. Udala ere lau urtetik behin.	
BAZTANGOIZA	
<b>Amaiur</b>	Julian Rekalde
<b>Azpilkueta</b>	Jon Alkasena
<b>Erratzu</b>	Juan Jose Bidart
<b>Arizkun</b>	Juan Cruz Iriarte
ELIZONDO	
<b>Elbete</b>	-
<b>Elizondo</b>	Xabier Torres
<b>Lekaroz</b>	Javier Elizalde
<b>Gartzain</b>	Jose Luis Elizegi
ERBEREA	
<b>Irurita</b>	Pello Obregozo
<b>Arraioz</b>	Sotero Etxandi
<b>Ornoz-Mugairi</b>	Bittor Elizagoien
BASABURUA	
<b>Ziga</b>	Pablo Zenoz
<b>Aniz</b>	Asier Maritoren
<b>Berroeta</b>	Arantxa Zelaia
<b>Almandoz</b>	Luis Roldan

tzak. Xorroxin irratia eta Xaloa Telebistak 6.215,24 eurona jasoko dute; **Ttapi-Ttapa**rentzat 4.808,02 euro bideratuko dira; AEK-k 4.690,75 euro jasoko di-

tu; Nafarroa Oinez 330,02 euro; Etxetik Plazarak 1.284,41 euro; Herri Urrats eta Euskal Kantu Txapelketa- rentzat 600 eurona aurreikusitu ditu.

### Iruritako eskola berrirako lurra lortu du Udalak

Hondarreko urte haue- tan gure herriak kontent daude, haunditzen ari baitira. Ez agian, kanpo- tik etortzen den jendea- rengatik, baizik eta jaiotze tasak nabarmen go- ra egin duelako. Baina horrela, gure eskolak tti- ki gelditzen ari dira eta horixe gertatu da Iruritan. Bigarren ikasturtez, ge- la bat eskolatik kanpo kokatu behar izan da. 2007/08 ikasturtean Pe- rez-Nievas Hezkuntza kontseilari gure eskole- tan izan zenean, Iruritik premia haundia zuela erran eta lehenatasuna eman zitzaion. Eskolako zuzendaritza, Eskola Kontseilua eta Guraso Elkarteak Udalarekin para- tu ziren harremanetan, eta bukaera zorionsua izan dute hartu-emanek. Udalak eskola eraikitze- ko lur eremua eskuratu du: 1.582 metro koadro erosi ditu frontoia eta kontsultategiaren ondoan. Leku eguzkitsua eta trafi- ko arriskurik gabekoa da. Hasieran, lurra lortzea arazo haundia zela zirudien, herri lurrak gutti dire- lakoz, baina eskuratu da, eta alde guztiei, batez ere Udalari eta eremu- aren jabeari, esker mile. Halere, oraindik zenbait tramite burokratiko egin beharko dira Gobernuan.

*Okindegia* *Jatetxea*

# Uxoa

**OKINDEGIA:** Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
**JATETXEA:** Menua eta Karta (asteburuetan)  
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan  
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,  
 goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea  
 Tfnoa: 948 453 403  
 31713 ARIZKUN

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostalua**  
**Hotela - Trinketea**

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte karrika  
**ELIZONDO**

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

## ZUGARRAMURDI

# Bake epaile postua betetzeko norbaiten bila dabil Udala

Inor aurkezten ez bada, Udalak berak aukeratuko du nor izanen den

## Margari eta Koro

Zugarramurdiko bake epailearen postua (*jeuz de paz* delakoa) hutsik dago momentu honetan. Postu hori betetzeko epea irekia dago, eta baldintzak jakin nahi izanez gero, Herriko Etxeko iragarki-taulan jarrita daude, edo bertze-la, Jabier idazkariarekin hitz egin behar da.

Bi baldintza eskatuko dira bake epaile izateko: 18 urtetik goitikoak izatea eta Zugarramurdin bizitzea. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da Herriko Etxean, eta bertan lanbidea zehaztu beharko da (bateraezintasunak ikusteko), baita NANAren kopia ere.

Postu honetarako inor aurkeztuko ez balitz, Udalak berak hautatuko du norbait.

## 'Zugarramurdi barne-barnetik' DVDa oparitan

Aitzineko hilabetee-tan Sorginen Museoko auditorioan egin zen *Zugarramurdi barne-barnetik* DVDaren aurkezpena. Gure herriari buruzko oren erdi bateko erreportajea ikusten da.

Lan hau Udalak ordaindua zuenez, aurkezpena egiterakoan zi-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Ageri denez, Olentzeroren bisitak arras kontent utzi zituen herriko gaztetxoak.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Eskolako neska-mutikoek ederki gozatu zuten abenduaren 19ko bestan.

negotzi batek aipatu zuen DVDa etxe guztietara banatuko zela. Eta hala izan da: Olentzeroren oparia bailitzan, Eguberriaitzineko egunetan etxe guztietara ailegatu zen DVDa.

## Mediku kontsulta haunditua

Udalak erabaki du zertan baliatuko duen jasotako 39.999 euroko laguntza: mediku kontsulta haunditzeko izanen da.

Oraingo kontsultan jendea artatzeko bulego bakarra dago, eta hor aritzen dira mediku eta erizainak, biak batera. Eginen diren obrekin bertze bulego bat irekiko da.

## URDAZUBI

## Aerobic eta pilates ikastaroak egin nahi dira

### ttipi-ttapa

Ugarana Emakume Taldeak ikastaro berriak paratu nahi ditu martxan. Kasu honetan, pilates eta aerobic egiteko izanen dira. Pilates astearte eta asteazkenetan eskainiko litzateke, asteartetan 18:00-etatik 19:30era eta asteazkenetan 20:00-etatik 21:30era. Aerobic, berri, ortegunetan izanen litzateke, 19:45etik 20:45era bitarte. Gainera, otsailaren erdi aldera, aerobic erakustaldi bat egiteko asmoa dago. Ikastaro hauetan parte hartzeko izena eman nahi dutenek 948 599027 telefonora deitu beharko dute.

## Lapurrak etxeetan

Herritarren artean, kezka eragin du bi etxetan lapurrak sartu izanak. Lapurrak ez dituzte atzeman oraindik, baina herrian erraten denez, Mercedes etxeko furgoneta batean dabilzaten bi emakume dira.


**BURKAITZEA**  
- ostaltzi  
- erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN





Itxi	* F1
Gorde	* F2
Gorde dena	* G
Ezabatu	* E
Berregin	
Bidali lotura postaz	
Kopiatu	
Itsatsi	▶
Ebaki	
Inprimatu	F6



### Atsegin dugu jakitea etorkizuna esku onetan dagoela

Atsegin dugu gure planeta hobetzeko lan egitea. Atsegin dugu ikertzea. Atsegin dugu jakitea etorkizuna aldatzen ahal dela. Eta atsegin dugu jakitea aunitz garela amets hau berbera konpartitzen dugunak. Ilusio honek egunetik egunera hobetzen laguntzen digu, ingurumenarekin arduratsuak diren portaerak geure gain hartzeko dugun konpromiso enpresarialarekin leial izateko eta eraginkortasunez jarduteko geure baliabideak optimizatzeko orduan.

  
**gasNatural**  
 Navarra

[www.gasnatural.com](http://www.gasnatural.com)

## SENPERE

# Mixu Urruñako kantariaren heriotzak samin haundia sortu du Senperen ere

Errugbi taldeko laguntzailea zen kantari ospetsu eta umoretsua

## Franck DOLOSOR

*Rockquiem* hitza idatzi du euskal prentsan Itxaro Borda idazleak. Heriotza eta rockaren arteko hitz-joko hau gustukoa izanen zuen seguraski Patrick Mitxele-*na* urruñarrak, Mixu kantaria zendu berriak. 39 urteko artistaren heriotzak lurrikara sortu du euskal musikaren munduan, baita gure herrian ere. Lagun eta segitzaile ainitz zuen Senperen ere. Ibarrungo azken bestetan kantaldia eskaini zuen Xabaltx eta Maialen Errotabeherekin. Herriko bestetan eta aintziran, Herri Urratsen karietarat, eman dituen kontzertuak ere ez ditu berehala ahantziko Senpereko gazteriak. Garai bat markatu baitu Mixuk. Musika eta besta egiteko moduak berritu zituen Sustrai taldearekin herriz herri ibiltzen hasi zelarik 1992an.

*Mustafa, Sardina kuzkuz, Pakita* eta holakotak kantatzen zituen umore haundiarekin. Dena den, azken urteetan gai sakonak ere landu zituen *Amatto* kantua moldatu zuelarik konparazione. Oraino gazte gaztea zelarik hil zitzaion mundurat ekarri zuen anderea. Preseski, Mixuren ama zena senperra zen sortzez.

## BAKARLARI LANETAN

Duela urte bat, diska bat plazaratu zuen bakarlari gisa eta orduan agertu zen Mixuren egiazko nortasuna. Indar haundikoa zen baina barnean zauriak zituen, zauriak eta maitasun haundia, bereziki orain aitarik gabe gelditu diren bere bi semeentzat. Arrakasta haundia erdietsi du taulen gainean, eta azpian, maiz hautsi baititu es-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Mende laurdena ospatzen

2008an, hogoita bortz urte bete duten senperrak lagunaren arteko otruntza egin dute berriki. Gazteak dira beti bainan orain mende erdia betetzeko bidea hartu dute.

zenatokiak. Halere, beti hurbilekoa izan da lagunaren laguna izan baita beti. Argentinan, Bourgeseko festibalean, Parisen eta Europan barna ibili da baina betiko lagunak Euskal Herrian zituen. Azken urteetan, lagun giroa sortu zuen Senperen eta eskualdi bat emateko beti prest baitzen herriko errugbilaria laguntzea deliberratu zuen. Mixuren heriotzak tristezia haundia sortu du, laguna, artista eta gaztea zelakoz.

## TAULA GAINEAN AGUR

Taula gainean pausatuta da Baionak eta Castrek jokatu behar



Dohain haundiko artista zela erakutsi du Mixuk. Bateriajole eta kantaria izan ondoren, Sustrai taldean, bakarlari gisa eta MMX hirukotearekin plazaz plaza ibili zen, Maialen Errotabehera eta Xabaltx lagunarekin. Hirukoteak Ibarrungo azken bestak alaitu zituen gan den udazkenean.

zuten errugby partidaren hastapenean kantatu eta. Partida jokatu zen, halere. Beharrik, Mixuk bizia maite

baitzuen, bizipoza sumatzen zitzaion. Kantuz eta saltoka gogoratuko dute orain musikazaleek.

VENTA DEIG RESTAURANT

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA

300m. perfume markarik ezagunerekin, usain onak, kosmetikoak...  
Euskal Herriko preziorik hobereenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

**MONTXO** OSTATUA

Dantzarineatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА  
АНЗАН-БОРДА - УРДАЗУБИ

Egunero irekia 10:30etik 02:30era



## SARA

### Maila handiko bertso-afaria egingen da larunbatean zortzi

Artetxek, Egañak, Arzallusek eta Mendiluzek kantatuko dute

#### Xan HARRIAGUE

Olhain ikastolak eta Gaztetxeak duela 20 bat urte neguan egingen zen bertso saioaren usaia berreskuratu dute afari baten inguruan. Herriko Etxea eta Bertsolarien Lagunak elkartearen laguntzarekin ez dituzte inolako nahiko bertsolariak ekarriko ilbeltzaren 31n Lur Berrin egingen den saiora. Andoni Egaña Euskal Herriko txapel-duna, Amets Arzallus eta Miren Artetxe Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuko txapelduna eta hirugarrena, hurrenez hurren, eta Aitor Mendiluze Gipuz-

koako txapelduna arituko dira.

#### ARANTZIPIREN OMENEZ

Mizel Dargaitz *Arantzipi* herriko bertsolariaren izena eman diote saioari. 1882an sortu zen, eta 1965ean zendu. Bertso andana bat utzi dizkio gure herriari. Dударik gabe neguhuntan huts egin behar ez den hitzordua izanen da bertso-afari hau. Txartelak Herriko Etxeko Edantegian erosi behar dira edo bertzenaz, erreserbatu telefono hauetako batera deituta: 0662911725 edo 055954275ra. Afariak 20 euro baizik ez ditu balio.



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Euskal presoak gogoan

Abenduaren 31ko gauean 30 bat lagun bildu ziren euskal presoak etxera ekartzeko aldarrikatuz



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Olentzero eta Mari Domingi bisitan

Olentzero eta Mari Domingik ohiko bisita egin zuten abenduan. Argazkian, Olentzero bere astoarekin plazara bidean, eta haurrak eta Mari Domingi gibelean.



Xanti Iturbide Almandoz

2004ko otsailaren 23an V. urteurrena.



Mikel Iturbide Matxikote

2007ko ilbeltzaren 24an II. urteurrena.

Negu gorria, mendi bazterralak elur xuriz estalirik, izotza behin eta berriz, txoriak berotu ezinik, zuen oroimena datorrenean gure bihotzetan ez da hotzik.

Xanti eta Mikelen familia. Igantzi, 2009ko ilbeltza.



### Bautista IRIGOIEN JORAJURIA

Arantzan, 2007ko otsailaren 2an

#### II. URTEURRENA

Argi bat itzali da  
Hemen lurrean  
Berri bat piztu da  
Han, zeru ederrean  
Beti jarraituko duzu  
Gure bihotzean

ZURE FAMILIA

## NEKAZARITZA

# Belate Esnekiak enpresak estatu mailako elikagaien sari jaso du

Malerreka, Baztan eta Leitzaldeko 10 ekoizlek Belaterentzat egiten dute lan

## ttipi-ttapa

Eskualdeko hainbat esne-ekoizle biltzen dituen Belate Esnekiak enpresak *Espainiako Elikagaiak 2008* saria jaso du behi-esnearen ekoizpen mailan. Lacturale izeneko esne marka berria merkaturatuz jaso du aipatutako saria Belatek.

Enpresa 2006an sortu zen eta gaur egun, Nafarroako 35 abeltzain biltzen ditu. Tartean daude, Arizkun, Donamaria, Beintza-Labaien, Oitz, Leitzeta eta Urrotzeko ekoizleak.

2007an Igara izenezko esnea merkaturatuz gero eta harekin ber-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaur egun, esnetarako behiak garai batean baino guttiago izan arren, eskualdean oraindik badira horretara dedikatzen diren ekoizleak.

tze sari bat eskuratu zuten: *Urteko Zaporea 2008* aipamena. Momentuz, Nafarroa, Ara-

ba, Gipuzkoa eta Huescara hedatzen dute euren esnea, baina etorkizunera begira, Nafar-

roan kontsumitzaile gehiago bilatzeaz gain, kanpora zabaltzea da euren helburua.

## ESKUALDEKO EKOIZLEAK

Belate Esnekiak enpresan sartuak dauden 35 ekoizletatik 10 gure ingurukoak dira eta horien artean, gehienak Malerrekakoak dira.

### URROTZ

- Severiano Matxinena
- Jose Antonio Arzuaga
- Miguel Angel Ezkurra
- Jose Martin Elizondo
- S.A.T. Elkartea

### DONAMARIA

- Kontxi Bazterrika

### BEINTZA-LABAIEN

- Angel Elizondo

### OITZ

- Oskar Ilarregi

### LEITZA

- Esteban Zabaleta

### ARIZKUN

- Pedro Jose Mendikoa



## Jose Maria SAN SEBASTIAN 'LATXAGA'

Donostian, 2008ko abenduaren 5ean, 75 urte zituela

Beti irribarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aurrera ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maita izan zaitugun familiarekin.

BERAKO FAMILIA



## Karmele ENETERREAGA IRIGOIEN

Lesakan, 2005eko urtarrilaren 1ean, 56 urte zituela

### IV. URTEURRENA

Poza banatzen zenbiltzan beti hemendik edota handik, oso berritsu eta alaia izan zinen ttikitandik. Aurrera egin beharra dugu bizitzara hala izanik, gu babesten hor ariko zara daukazun dena emanik; zure ondoan guztiok zerbait ikasi dugu zuegandik. Lau urte pasa arren **Zu** gabe, gurekin zaude oraindik

ZURE FAMILIA



## Pakita OTEIZA ELIZALDE

Iturenen hil zen, 2008ko abenduaren 24an

Ilargirik gabeko gau izartsu batean agur eman zeniguna une txar eta honetan beti gogor egiten zenuena familian ere hutsune haundia utzi diguzuna zauden tokian zaudela ere beti bihotzean izanen zaituguna

ZURE BILOBAK



## SORTZEAK

Saioa Etxegarai Maiz, Arantzakoa, abenduaren 26an.  
 Kattalin Peñalver Leitza, Arantzakoa, abenduaren 29an.  
 Haizea Lopez Mitxeo, Gaztelukoa, abenduaren 4an.  
 Iraia Salaberria Narbarte, Aranokoa, abenduaren 30ean.  
 Ainhoa Dantas Rodrigues, Doneztebekoa, abenduaren 20an.  
 Oier Lucia Beorlegi, Berakoa, abenduaren 16an.  
 Irati Muxika Berrueta, Berakoa, abenduaren 18an.  
 Xabier Garro Lasheras, Lesakakoa, ilbeltzaren 4an.  
 Jose Fernando Asto Huaman, Lesakakoa, ilbeltzaren 6an.  
 Aritz Bergara Camino, Arraiozkoa, abenduaren 15ean.  
 Saioa Barrenetxe Bertiz, Elizondokoa, abenduaren 22an.  
 Ekain Perugorria Aldakoa, Elizondokoa, abenduaren 22an.  
 Jasone Bailon Urtaşun, Iruritaakoa, abenduaren 26an.  
 Kian Larregi Matillano, Elizondokoa, abenduaren 16an.  
 Julen Valer Etxeberria, Arizkungoa, urtarrilaren 2an.  
 Miren Osacar Mutuberria, Zigakoa, urtarrilaren 5ean.  
 Amaia Urrotz Gonzalez, Urrotzekoa, abenduaren 20an.  
 Markel Martinez Sagastibeltza, Leitzakoa, abenduaren 9an.  
 Maddi Martinez Barranco Duce, Leitzakoa, abenduaren 8an.  
 June Vicente Agirre, Leitzakoa, abenduaren 23an.  
 Saioa Buldain Alduntzin, Leitzakoa, ilbeltzaren 7an.  
 Iera Buldain Alduntzin, Leitzakoa, ilbeltzaren 7an.

## HERIOTZAK

Roman Eskudero Mitxelena, Goizuetakoa, urtarrilaren 1ean, 70 urte.  
 Jesus Eskudero Mitxelena, Goizuetakoa, urtarrilaren 11n, 72 urte.  
 Francisco Arburua Irisarri, Etxalarkoa, abenduaren 20an, 86 urte.  
 Jose Javier Uharte Arregi, Elizondokoa, abenduaren 22an, 68 urte.  
 Evaristo Altzugarai Telletxea, Lesakakoa, abenduaren 20an, 79 urte.  
 Rafaela Acosta Gonzalez, Lesakakoa, abenduaren 24an, 80 urte.  
 Pakita Oteiza Elizalde, Iturengoa, abenduaren 24an, 71 urte.  
 Martina Errazkin Flores, Berakoa, abenduaren 26an, 84 urte.  
 M<sup>re</sup> Teresa Etxenike Organbide, Azpilkuetakoa, abenduaren 27an, 74 urte.  
 Juan Altı Ariztegi, Zugarramurdikoa, abenduaren 27an, 67 urte.  
 Teresa Sanzberro Istilart, Arizkungoa, abenduaren 27an, 71 urte.  
 Beñardo Sanzberro Arburua, Etxalarkoa, abenduaren 29an, 87 urte.  
 Robustina Ordoki Berasategi, Berakoa, abenduaren 29an, 79 urte.  
 Jose Ramon Aierdi Baraibar, Leitzakoa, abenduaren 31n, 76 urte.  
 Antonio Ursuegi Zelaieta, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 1ean, 84 urte.  
 Pedro Urreta Izagirre, Leitzakoa, urtarrilaren 2an, 79 urte.  
 Juan Goikoetxea Etxeberri, Iruritaakoa, urtarrilaren 4an, 82 urte.  
 Telesfora Azpirotz Labaien, Leitzakoa, urtarrilaren 5ean, 88 urte.  
 Teresa Etxebere Inda, Urdazubikoa, urtarrilaren 7an, 87 urte.  
 Jose Goñi Goñi, Donamariakoa, urtarrilaren 9an, 88 urte.



## EZKONTZAK

Miren Arantxa Bakero Eskudero eta Fernando Ibañez Monleon, Goizuetakoa eta Valentziakoa, abenduaren 20an Goizuetan.




**Xabier ZUBIETA ERKIZIA**  
**Luis Mari PIKABEA ZUBIETA**  
**Xabier SARALEGI ALTZATE**



**II. URTAMUGA**  
 Arantza, Bera, Lesaka

*Gailurra edo magala, zein ikusmira zabala maitatzen segiko zaituztegu, zuek mendia bezala.*

**ETXEKOAK.**



**Jeroni**  
**ETXARTE ETXENIKE**

Etxalarren, 2008ko abenduaren 9an, 91 urte zituela

*91 udaberritan  
 eman digun umorea  
 91 udaberritan  
 loratu den landarea  
 joan egin da gure amatxi  
 andre alai, dotorea  
 biño bihotzın leku bat dugu  
 beti zuretzat gordea*

**ZURE FAMILIA**

## SOKATIRA

# Amaiurko mutilak nagusi Euskal Herriko 4x4 Sokatira Txapelketan

Amaiurko neskak hirugarren gelditu dira 250 kilokoan kategorian

## ttipi-ttapa

Bikain borobildu zuen 2008a Amaiurko mutilen sokatira taldeak: Euskal Herriko Lauko Sokatira-ko txapela jauntzita, alegia. Abenduaren 20an erabaki zen txapelketa Igeldon (Gipuzkoa), bai nesketan eta mutiletan. Emakumezkoetan ere aritu ziren eskualdekoak, eta Amaiurkoak hirugarren sailkatu ziren eta Beti Gaztekoak bostgarren eta seigarren.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## MUTILETAN SEI TALDE AURREZ AURRE

Gizonezkoen dagoenez, sei talde aritu ziren 300 kilokoan finalean, tartean, Amaiurko A eta B taldeak.

Amaiur B eta Berriozar A taldeek mendean hartu zituzten saioan aritu ziren kontrario guztiak, eta azken txandan era-

**Ez zaie ez gustura egoteko arrazoirik falta Amaiurko sokatira taldeei. Emaitza onekin akitu baituzten urte zaharra.**

baki zen txapela. Urrezko dominarako lehiari, azken txanda erabakigarrian, lehen tiraldia Amaiurrek eraman zuen, 2 minutu eta 48 segunduan. Bigarren ere lehiatua izan zen eta berriro baztandarrek bereganatu zuten tiraldia. Hi-

rugarren posturako lehiari puntutan berdinak gelditu ziren Berriozar B eta Amaiur A, seina punturekin eta kitarakoa jokatatu behar izan zuten; Berriozar B gailendu zen.

Honela gelditu zen sailkapena:

1. Amaiur B.
2. Berriozar A.
3. Berriozar B.
4. Amaiur A.
5. Auzolan (Astigarraga).
6. Baiona.

## EMAKUMEZKOETAN ZAZPI TALDE LEHIAN

Emakumezkoen 250 kilokoan zazpi talde ari-

tu ziren lehiari, eta lehen jardunaldian bezala, bigarren ere, hasiera-hasieratik hartu zuen sailkapeneko burua Gasteizko Badaiotz taldeak. Sei kontrarioak mendean hartu zituen, erraztasun handiz, tartean Amaiur eta Lesakako Beti Gazteko bi taldeak.

Bigarren postuan Oartzungo Giriziak akautu zuen, Badaiotz izan ezik, gainerako bost aurkariak gaituztu. Amaiurrek osatu zuen podiuma, eta biziki kontentakitu zuten brontzezko domina kolkoratuta.

Honela gelditu zen sailkapena:

1. Badaiotz (Gasteiz).
2. Girizia (Oartzun).
3. Amaiur.
4. Sakana.
5. Beti Gazte A.
6. Beti Gazte B.
7. Berriozar.

## KORRIKA

# Maika Ariztegi iturendarra Nafarroako txapelkun izan da beteranoetan

Gizonezkoetan, Rafa Maritxalar lesakarrak hirugarren postua eskuratu du

## ttipi-ttapa

Beste Iruña taldean ari den Maika Ariztegi iturendarra irabazi zuen urtarrilaren 11n beterano mailako Nafarroako kros txapelketa Castejonon. Mai-

ka Ariztegi zazpi aldiz irabazia du Nafarroako txapelketa senior kategorian baina lehen aldiz parte hartu eta estroinekoan lortu du beteranoen mailakoa, 36 urterekin.

4.600 metroko ibilbide zaila egiteko 18 minutu eta 28 segundo behar izan zituen Maikak eta 34 segundoko alderatuz bigarren izan zen Ribera Atletico taldeko Mireya Perezi. Zu-

meatarra taldeko Rosa Mari Luenak osatu zuen podiuma eta iturendarrak baino minutu eta 9 segundo gehiago behar izan zituen.

Taldeka ere Beste Iruña nagusitu zen.

Txapelketa berean, gizonezko beteranoen dagoenez, Hiru-Herri taldeko Rafa Maritxalar lesakarra hirugarren izan zen. 20 minutu eta 44 segundoko denbora egin zuen Maritxalarrek.



## PILOTA

# 70 pilotariren artean erabaki da Baztango Pilota Txapelketaren XXVII. edizioa

Finalak abenduaren 20an jokatu ziren Erratzuko Etxelebert frontoi zaharberrian

## ttipi-ttapa

Mende laurdena duela bi urte gainditu zuen Baztango Pilota Txapelketak, azkena 27. edizioa izan baita. Finalak Erratzuko Etxelebert frontoi itxuraberrian jokatu ziren abenduaren 20an, umeen mailatik hasi eta kadeteen mailara bitartek. Guztira 70 pilotari aritu ziren urritik abendura iraun zuen txapelketan eta hau izan zen finalek utzi zutena.

**Umeen B mailan,** Oihan Meoki eta Ibai Merino elizondarrek 18 eta 13 irabazi zieten Jon Larretxea lekozarrari eta Kaiet Juanena elizondarri.

**Umeen A mailan,** Jaber Etxegoien eta Ibon Irazoki elizondarrak nagusitu ziren. 8 tantorekin



ARGAZKIA: ZALDUA

**Baztango txapelketaren edizio honetan parte hartu duten pilotari batzuk ageri dira argazkian.**

utzi zituzten Ander Zelaieta eta Elur Meoki herriarrek.

**Kimuen mailan,** txapela Baztanen gelditu zen. Iker Gamio arizkundarrak eta Sergio Oskotz elizondarrak 18 eta 16 irabazi zieten Enaitz

Ansolegasarrari eta Iker Espelosin sunbildarrari.

**Haurren B mailan,** Andoni Espelosin sunbildarra eta Iñaki Azpizurritarra 18 eta 15eko markagailuarekin gailendu ziren. Aitor Almandoz lekozarrak eta David Al-

biasu narbartearra izan zituzten aurrez aurre.

**Haurren A mailan,** garaipena Iturenara jogan zen. 18 eta 8, Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo nagusitu ziren Babsaburuako Aingeru Etxeola eta Ultzamako Peio

Iribarrenen kontra.

**Kadeteetan,** baztandarrantzat izan zen txapela. Iñaki Oskotz almandozarrak eta Iban Inda amaiurrak 18 eta 13 irabazi zieten Ultzamako Julen Iribarren eta Igoako Unai Martikorenari.

## KORRIKA

## Barberena eta Arbues garaile Doneztebeko San Silvestre lasterketan

Baztandarrak 13 segundoko aldea atera zion bigarrenari, eta igantziarrak segundo bakarrekoa

## ttipi-ttapa

Hainbat tokitan bezala, Urtezahar Egunez, Doneztebeko III. San Silvestre lasterketa egin zen. Erreka Elkartearen iragarpen guztiak gainditu zituen lasterketaren hirugarren edizioak eta 124 korrikalari atera ziren.

Mutiletan Alberto Barberena baztandarra izan

zen irabazle. 10:59ko denbora behar izan zuen lasterketa akitzeko. Bigarren postuan, Xanti San Miguel doneztebarrak gelditu zen. Honek aituzinekoak baino 13 segundo gehiagotan akitu zituen lanak (11:12). Hirugarren, berriz, Patxi Irazoki igantziarra gelditu zen (11:38).

Nesketan lehia estua izan zen, baina azkenean Cristina Arbues igantziarra izan zen garaile. 12:58ko lana egin zuen Igantzin bizi den kataluniarrak. Teresa Jadraque sailkatu zen bigarren, segundo batera eta hirugarren Ana Zelaieta doneztebarrak. 13:35eko lana egin zuen.



# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### SOLASALDIAK

#### GOIZUETA

Urtarrilaren 26an, adin berdinekoen arteko kalitateko harremanei buruzko hitzaldia. 15:30etik 16:00etara eskolan.

#### ELIZONDO

Urtarrilaren 30ean, Jendarte kapitalista eta garapenaren mitoa izeneko hitzaldia. Hizlaria: Pedro Albite, soziologoa eta EHUko irakaslea. 20:30ean Gaztetxean.

#### LESAKA

Otsailaren 6an, *Krisi ekonomikoa: arrazoiak eta ondorioak* hitzaldia Igor Arroyoren eskutik (Nafarroako LAB sindikatuko arduraduna). 20:00etan Arrano Elkartean.

### IKASTAROAK

#### URDZUBI

Urtarriletik maiatzera, dantza ikastaroa. Astearterko 19:30etik 20:30era. Izena emateko lehenbailehen deitu 948 599027 telefonora.

#### ESKUALDEA

Laster, teknologia berrietara hurbiltzeko doako ikastaroa. Xehetasunak 18. orrialdean.

### INAUTERIAK

#### ITUREN, AURTITZ, ZUBIETA

Urtarrilaren 22an, 24tik 28ra eta 31n inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

#### LEITZA

Urtarrilaren 24tik 27ra inauteriak. Xehetasun gehiago erdiko gehigarrian.

#### ARANTZA

Otsailaren 5tik 7ra inauteriak.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Sunbilla, Ituren eta Zubietako inauterien kronikak eta DVDak

ILBELTZAREN 26, 27 ETA 28AN IKUSGAI

Zenbait herritan pasatuak, baina gehienetan oraindik pasatu gabe daude aurtengo inauteriak. Ofizialki otsailaren hondarrean egiten badira ere, Erregeak pasatu eta segituan ailegatzen da eskualdera mozerro, karroza, joaldun eta atsaureen besta. Hala, Orabidean eta Eratsunen dagoneko eginak dituzte inauteriak. Eta orain, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** bere baitan hartzen dituen herrien txanda dator. Sunbilla, Ituren, Aurtitz eta Zubietak hartuko dute lekukoa.


Asteburuan, Sunbillako gazteen etxez-etxeke eskea, neska-mutikoen mozerroak eta karrozen des-

fileko irudirik onenak bildutakoan, astelehen eta asteartean Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunen eta karrozen joan-etorriak bilduko dira. Horiek denak hurbil-hurbiletik segituko dituzte telebistako kazetari eta kamara operadoreek eta astelehenetik asteazkenera ikusi ahal izanen dituzue arratsaldeko 8etatik aitzinera.

Azkeneko urteotan egin ohi den modura, nahi duenak DVD kopiak ere erosi ahal izanen ditu: Sunbillakoa alde batetik eta Ituren, Aurtitz eta Zubietakoa bertetik.

Eta oraingoz, hortxe bukatuko du bere eguneroko produkzio-aldia **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**.

## DISKAK



Getxo

KORRONTZI

BAGA-BIGA, 2008

Korrontzi taldearen emaria folk musikaren emaria 2004an hasi zen indartzten. Euskal Herriko musika eta batez ere trikitixa oinarri hartuta, tradizioa gaurko teknikarekin lagunduta eta bere ondoan dituen bertze tresna guztien batuketa da azken batean Korrontzi. Lehen diskoa 2006an argitaratu zuen, *Korrontzi* izenarekin. Honi, berriz, *Getxo* izena paratu diote, 2008ko Getxo Folk Jaialdia baliatu baituzten euren bigarren lana grabatzeko. *Getxo* disko bikoitza da. Hala, batetik, DVD batean Korrontzi taldearen irudiekin kontzertu osoa ageri da, Getxo Folk Jaialdiko kontzertua, hain zuzen. Bertetik, berriz, CD-audioa dago. Guztira 23 abesti ditu DVDak, eta 16 CDak. Hainbat ahots ezagun ere entzun daitezke diskoan: Mikel Urdaingarín, Xavi Sarriá (Obrint Pas), Faltriqueira talde galiziarra...

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 34,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,017€ kiloa. (-0,015)

**Zerramak:**  
0,460€ Kg/bizirik. (-0,040)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
Idixkoak: €/kg. Kanal Extra 4,25 (+0,03)

**1.koa** 3,95 (+0,03)

**2.koa** 3,25 (+0,03)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,35 (+0,03)

**1.koa** 4,05 (+0,03)

**2.koa** 3,37 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 6,00/6,80

8-10 kilokoak: 4,80/5,20



## JAKIN BEHARREKOAK

# Banaz bertze 150 euro gastatuko ditu nafar bakoitzak merkealditan

Merkealditan aintzat hartzeko zenbait aholku eman ditu Irachek

Eguberrietako ospakizuin guziak bukatu eta gero, hilaren 7an hasi ziren merkealdiak eta jendeak lehenbiziko egunetik ekin zion erosketak egiteari. Irache Kontsumitzaileen Elkarreak jakinarazi duenez, nafarren %62ak egun hauetan erosketak egiteko aprobetxatzen du eta banaz bertze pertsonako 150 euro inguru gastatzen dira. Hiru pertsonatik bat, gainera, garai honen esperoan egoten da lehendik pentsatuak zituena erosketak egiteko.

Joera hori ikusita, Irachek kontsumoa neurritz eta arrazoiz egitea aholkatu du. Izan ere, prezioen jautsierak aurrezteko aukera ematen badigu ere, sobera kontsumitzailea ere bultzatzen ahal gaitu. Horregatik, eskaintzak ongi au-



**Krisia dela-eta, aurten dendariak inoizko merkealdirik haundienak eskaintzen ari dira.**

keratzea eta kalitate eta prezioaren araberako erosketaren irizpideak segitza gomendatu du.

### AHOLKUAK

Merkealdietan erosketak egiterakoan segitu beharreko bertze zenbait aholku jakinarazi ditu Irache Kontsumitzaileen Elkarreak.

- Ez da komeni presaka eta jende aunitz

dagoenean erostea. Hobe da ordu lasaie-nak aukeratu eta modaz pasatzen ez diren produktuak erostea.

- Merkealdietan ere prezioak konparatzea komeni da.

- Etiketak zuzen daudela ikusi eta faktura eskatu. Erosketatik gabe, gero nekez egiten ahal da erreklamaziorik.

- Gogoratu behar da kontsumo ondasun

guziek legez bi urteko garantia daukate-l. Hala dio 2003ko irailaren 11ko garrantien legeak.

- Merkealdietan ere txartelekin erosteko aukera izaten da, den-dak edo produktuak argi eta garbi kontra-rik adierazten ez ba-du. Bigarren eskuko ondasunen kasuan, saltzaileek produktu berriek dituzten au-kerak eskaini behar dituzte.

- Ordaindu aitzine-tik, artikulua alda dai-tekeela ziurtatu behar da. Artikulua aldatu edo konpondu ezin denean dirua bueltan jasotzeko eskubidea izanen luke erosleak.

- Kontuz arropen neurriekin. Merkealditan neurri guztietako jantziak daudela ego-teak ordura arte ez di-rela ongi saldu adie-raz dezake, edo pro-duktoa merkealditan saltzeko erosi dutela.

## LIBURUAK



*Afrika Express*

**Urtzi URRUTIKOETXEA**

*ELKAR, 2008*

Afrika, gizateriaren arragoa, kontinente beltza, kolonialis-moaren lehen eta azken bik-tima. Milaka afrikarrek ipar-ralderantz egiten duten txan-go arriskutsua nabarmen erraztu da basamortuko erre-pidea asfaltatu zutenetik. Renault Express zahar bat har-tuta Afrika Beltzeraino gara-matza Urtzi Urrutikoetxearen bidaia-kronikak. Bilbon bere lehenbiziko autoa izan zen Renault Express zaharra pres-tatu eta Dakarrerako bidean,

iberiar Penintsula, Maroko, Mauritania, Mali eta Senegal gurutzatu zituen eta hortik abiatuta osatu du kronika hau idazle eta kazetari bilbotarrak. Horretarako, kotxez 8.000 ki-lometro inguru egin zituen au-toan bertze lagun batekin eta bertze milaka batzuk ere egin omen zituzten autobusez. Bi-daiatu bitartean idazten aritu zen eta horren fruitua dugu 2008aren akaberan aurkeztu zuen *Afrika Express* argital-pena.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

**Urtarrilaren 25ean,** Abartanera ateraldia Baztango Mendigoizaleak Taldeak antolatuta.

**Otsailaren 1ean,** Burgara irteera antolatu du Baztango Mendigoizaleak Taldeak.

**Otsailaren 8an,** Aizkolegira mendi ateraldia Baztango Mendigoizaleak-ek antolatuta.

#### BERA

**Otsailaren 1ean,** Beratik Goizuetara mendi ateraldia. Xehetasunak 9. orrialdean.

### ANTZERKIAK

#### ELIZONDO

**Urtarrilaren 24an,** *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlana Arizkunenea Kultur Etxean.

**Urtarrilaren 24an,** Klwonstrofobia mendia, klown emanaldia. 20:30ean Gaztetxean.

### KONTZERTUAK

#### ERRATZU

**Otsailaren 13an,** Kaleginez taldearen kontzertua ZubiPunta ostatuan. 23:00etatik aitzinera.

#### ELIZONDO

**Ilbeltzaren 24an,** Zolda, Txurrustada eta Ziemo taldeen kontzertua. 22:00etatik aitzinera Gaztetxean.

### BERTSO SAIOAK

#### SARA

**Urtarrilaren 31n,** bertso-afaria. Aitor Mendiluze, Andoni Egoña, Amets Arzallus eta Miren Artetxe bertsolariekin. 19:30ean Lur Berri gelan.

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Tipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartitua
106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

### LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

### MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

### ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

### DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

801. Agurrak



## Baztango

promoción inmobiliaria

**BERA: AUKERA:** berritutako pisua. Egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta trastelekuak. 202.000 euro.

**BERA:** etxebizitza berria (2 solairu). 2 logela, egongela, sukaldia, trastelekuak eta igogailua. Eskuratzeko prest.

**BERA:** herrigunean, familia bakarreko etxebizitza, garaje eta lorategiarekin.

**BERA:** herrigunean, atikoan, pisu-estudioa. Estrenatzeko.

**BERA:** 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta komuna dituen etxebizitza. Igogailua eta trastelekuak.

**BERA:** Legia karrikan, 117 m<sup>2</sup>ko etxebizitza, zaharberri beharrekos. Kanpalderra begira.

**BERA:** familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza egiteko lur eremu urbanoa.

**LESAKA:** Bittiria karrikan 100m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria, 100 m<sup>2</sup>ko atikorekin.

**ETXALAR:** 189 m<sup>2</sup>ko pisua, baratzearekin.

**SUNBILLA:** baserria egoera onean. Lur eremu handia.

**ERRENTAN EMATEKO:**  
BERA: Pisuak eta lokalak.  
LESAKA: 3 logelako pisua, sukalde-egongela eta bainugela. Egoera onean.  
ELIZONDO: 2 logelako pisua, egongela, sukaldia eta bainugela.

**LUR EREMU URBANOAK:**  
Herrigunean BERA, ETXALAR eta DONAMARIAN.

Kattonberri karrika, 4 Tfn. 948 630552  
31780 Bera, Navarra Faxa 948 630106

## ANZABAL

### INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**NARBARTE.** 70m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Sartzeko prest. 162.000 euro. ☎687 111420.

**LESAKA.** Herri sarreran pisua salgai. 3. solairuan. ☎670 423770.

**IGANTZI.** 90m<sup>2</sup>ko pisua salgai herri sarreran. ☎948

259039.

**ARANTZA.** Pisua bere garajearekin salgai. ☎697 474042.

**LEITZA.** Etxebizitza eta bajera salgai. Bizitzera sartzeko prest. ☎948 510545.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisu moblezatua errentan emateko. ☎948 630270 (deitu eguerdi eta arratsetan).

**ELIZONDO.** Saskaitz plaza pisua errentan emateko. ☎677 688158.

**ARTIKA.** Mobleztatutako atiko-duplexa bi terrazekin errentan emateko. 3 logela eta bi bainugela. Estrenatu gabea. Garaje plaza eta trasteroarekin. Ekonomikoa. ☎636 371991.

**LEGASA.** Pisu berritua errentan emateko. ☎677 089046 (arratsalde).

**LEITZA.** Pisu mobleztatua errentan emateko. ☎606 225251.

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

### ELIZONDO-ELBETE.

Etxebizitza bat errentan hartuko nuke. ☎ 610 949168.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 107 Saldu

**LESAKA.** 53 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, beheko solairua. ☎ 679 432522.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**BERA.** Agerra auzoan garaje bikoitza errentan emateko. ☎943 523784.

### ZERBITZUAK

#### 205 Zurginak

## ARANTZA

Zurgindegia.....

Klase guttiestako zurgin lanak

Eskatu aurrekontuak konpromisoak gabe

Jose Miguel Errodoño

Tel. 948 634 348 - 447 818 344

Gaztebidea - ARANTZA

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak

Mota guztietako **fruta-ربولak** kimatzen dira. ☎666 283847.

**BURLATA-IRUÑA.** Tayri higiene-naturista zentroa: ikastaroak asteburuetan=20 euro=nola araztu organismoa halako kasuetan: botikak hartuta, gehiegizko elikadura, alkohola, tabakoa, drogak, alergia... nola prebenitu: katarro errepikakorak, otitisa, anginak, infekzioak, operazio-ondokoa/aurrekoa edo egonaldia ospitalean. Kiromasajista: osteoartikularra eta zirkulatorioa=9 egunetan=150 euro. ☎948 186907/ 647 156370.

### LANA

#### 301 Eskariak

24 urteko **gazte batek** kamioiarekin lan eginen luke. Gida-baimen guztiak dituen. ☎948 451624.

**Odontologiako laguntzaile** gisa edo **diseinu grafikoan** lan eginen nuke. ☎600 092237/948 625791.

Berako **emakume euskaldun batek** goizez etxek garbitzen lan eginen luke. ☎630 972189.

**Geriatría laguntzaile** tituludunak lan eginen luke. Heldu zein ezinduekin eguneroko betebeharretan eta zainketa osorako lan egiteko. Informeak baditu. ☎948 637546.

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**DONEZTEBE.** Bixen ostatuan sukaldari eta garbiketaria lanetan aritzeko langilea behar da asteburuetan. ☎948 450383.

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

**Kawasaki ZZR 1.100** motorra salgai. Gurpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. 2.000 euro. ☎646 769186.

**Seat Ibiza 1.400** autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri du tenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egokituarekin. ☎699 279940.

**Nissan Primera familia-rra 2.0 TD** salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Egoera onean. Prezioa: 5.500 euro. ☎616 216049.

**Mercedes Viano Marco Polo** furgoneta salgai. 2006koa. 50.000 km. 150 CV. Extrekin. Egoera onean. ☎670 415720.






Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**IBAN NUÑEZ** beratarrak urtarrilaren 2an 4 urte bete ditu. Zorionak aita eta amaren partetik. Muxuak.



Elizondoko **LORENTXO MORTALENA OTEIZAK** 44 urte bete ditu urtarrilaren 19an. Zorionak, muxuak eta besarkadak Beñat eta Gaizkane-ren partetik.



**EKIÑE GARAZO GAMIOK** 6 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak Bera-ko familiaren partetik, bereziki aitaren partetik. Muxu haundi bat preioxal!



**EIDER MOLINERO BARRETO** beratarrak 6 urte bete ditu urtarrilaren 18an. Zorionak familia guztiaren partetik.



**IRAIA GILLENEA IRIARTEK** hilbeltzaren 9an 10 urte bete ditu. Muxu pila bat familia eta bereziki Alaitz, Izar eta Lai lehesusin partetik.



Etzalarko **MARIA JESUS ZUBIETA** bere amatxik urteak betekoko ditu ilbeltzaren 30ean. Auniz urtez familia osoaren partetik.



**IRATXE TELLETXEA TELLETXEA** eta **UGAITZ ALDABE TELLETXEA** izeba-lobek 34 eta 4 urte bete dituzte urtarrilaren 14an eta 16an. Mila zorion familia guztiaren partetik eta bereziki Izaro eta Zairaren partetik. Zorionak!!!



**IRAIA SALABERRIA NARBARTE** aranoarra abenduaren 30ean jaio zen. Mila zorion etxekoaren partetik. *Haurto berri bat jaio egin da! Nafarroako Arano herrian/ holako aingeru zora-garririk/ ezta egongo Euskal Herrian/ polita eta alala/ degu gure Iraia/ bere luxe laburrian/ danak txorazten ibiltzen gera/ beida beraren aurrian.*



Urte askotarako **XUBAN!!!** Urtarrilaren 25ean zure lehenengo urtea betekoko duzu! Pa haundi bat zure familia guztiaren partetik eta segi beti bezain irribarretsu.



**EKIÑE GARAZO GAMIOK** abenduaren 31n 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu asko bereziki amatxi Engraxi, Ander eta Saioaren partetik.




**EKIÑE GARAZO GAMIOK** abenduaren 31n 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxuak izeba Asun eta Carmeloren partetik. Segi beti bezain preziosa.



**XUBAN ETXARTE** indabereak urtea bete du urtarrilaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



**LEIRE ARNAIZ PIZZIO** beratarrak 5 urte betekoko ditu urtarrilaren 22an. Auniz urtez familiaren partetik. Ongi pasa eguna.



**XABIER MARTI-KORENA SAHARRA** beratarrak urtarrilaren 11n 6 urte egin ditu. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Manex eta Josebaren partetik.



**IZARO LARRAIOZ** Alzurik 3 urte bete ditu ilbeltzaren 14an. Auniz urtez eta muxu auniz potteki Urrotzko, Arantzako, Oitzko eta Donostiako familien partetik.



**IZARO LARRAIOZ** Alzurik 3 urte bete ditu ilbeltzaren 14an. Auniz urtez mattia! Ea bizikletan abudo ikasten duzun kanpoan bama ibiltzeko! Muxu pila bat atatto eta amatoren partetik!



**JON PAGOLAK** urtarrilaren 27an 5 urte betekoko ditu. Zorionak *bihurri* eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**JON PAGOLAK** urtarrilaren 27an 5 urte betekoko ditu. Zorionak *bihurri* eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**ATATXI, MARTXEL** eta **JULENEK** urteak betekoko dituzte urtarrilaren 25ean, otsailaren 9an eta 20an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Zorionak hirukote, **OSKIA, ISMAEL** eta **LAIENE**, urtarrilaren 17, 22 eta 28an urteak betekoko dituztelako. Ea ze berendua prestatzen duzuen! Zorionak familia guztiaren partetik.



**IÑIGO ETXEGARAI** **ALDABE** beratarrak 11 urte bete ditu urtarrilaren 20an. Auniz urtez familiaren partetik. Aupa Barzelona!



Doneztebeko **ANA MINDEGIK** urteak bete ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.




Igantzioko **JONE TXOPERENA** **SALDIAS**. Zorionak gure sorginari atxa, ama eta anaiaren partetik.




**JONE TXOPERENA** **SALDIAS** zorionak urtarrilaren 19an urteak bete dituelako. Igantzi eta Urrotzko ataxi-amatxien partetik.



**IZARITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



**IZARITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.




**IZARITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.




Igantzioko **MIGUEL, IORITZ** eta **LARRAIZ** **EUGIK** urtarrilaren 19, 26 eta 31n urteak betekoko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana amatxoren partetik.



**IRATI IBARRA DAGERRE** eta **IZARO LARRALDE** **IBARRA** beratarrek otsailaren 2an eta urtarrilaren 26an 7 urte betekoko dituzte. Noizko trikitixa eta pandero saioa? Zorionak eta muxu pila Ariz eta Ugaitzen partetik.



**NEREA PETRIRRENA** **APEZTEGIK** 3 urte betekoko ditu urtarrilaren 26an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Zorionak Bera-ko **IORITZ ARBURUARI** 9 urte betekoko ditu urtarrilaren 24an. Ongi pasa eguna atxa, ama eta lkerren partetik. Aupa Ninten...



**IORITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



**IORITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



**IORITZ ARBURUA** **LEONIS** beratarrak urtarrilaren 24an 9 urte betekoko ditu. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



Auniz urtez **MOXOLA!** Ea txanpan tragoxka batera gonbidatzen gaituzun. Muxu haundi bat! Kaxkarrak.




**GORETTI ALZURI, ARANTXA ARIZTEGI** eta **ELISA ALMANDOZ** urtarrilaren 18an eta 19an urteak bete dituzte. Zorionak zuen lagunen partetik. Segi beti bezain alaiak izaten!



Igantzioko **AIMAR** eta **ENAUTEK** urteak betekoko dituzte ilbeltzaren 16 eta 22an. Auniz urtez elurzale-ak! Muxu bana etxekoaren partetik.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.



Igantzioko **ENAUT** eta **ATTARI** auniz urtez ilbeltzaren 22an eta otsailaren 1ean urteak betetzeagatik. Tarta eta pastelak zuen kontura, e? Muxu bana. Ama eta Oier.

**ttipi**  
**ttapa**

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

☎ (0034) 948635458



deskontuak  
DENDA HAUETAN EROSTEGATIK

**IPARLA**  
kirolak

IPARLA Kirolak • ELIZONDO  
% 8ko deskontua 30€tik gorako gastuan



MARICRUZ • DONEZTEBE/ELIZONDO  
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

**Kalotxa.**  
Zapatadenda.

KALOTXA zapatadenda • ELIZONDO  
%5eko deskontua, 10€tik gorako gastuan



INTZURI Optika • LESAKA  
%10eko deskontua

**IPINGI**

IPINGI Arropa-denda • ELIZONDO  
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

**FANTXIKE**

FANTXIKE Arropa-denda • ELIZONDO  
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



SANSIÑENA Tailerra • ELIZONDO  
%10eko deskontua olio-aldaketetan

**SARIDUNAK:**

- 1 Chuchin Ibañez diska (Fermin Music): M<sup>o</sup> Dolores Albizu (LESAKA)
- 2 3 liburu (Elkar): Garbiñe Sarasola (LESAKA)
- 3 AQUARIUM 2 sarrera Lourdes Indakoetxea (SUNBILLA)
- 4 Pirritx, Porrotx eta Mari Motots lotea: Irene Ayoroa (SUNBILLA)

**SASKIA**  
Estrella Bidegain (ARIZKUN)

**ORAIN** [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

**ESKATU ZURE TXARTELA**  
**948 63 54 58**



**ttipi txartela** rekin  
beti irabazten da!

**9 zozketa**

PARTE HARTZEKO deitu  
asteleheneratik ostiralera  
09:00 - 16:00 Tel: **948 63 54 58**

**HIRU LIBURU**  
Txomin lagunaren etxean hitz berrakidurara eta beste 11 hitz abelín eta aurka  
**1 Lote 1**  
baizabal  
www.baizabal.com

**DISKA**  
Ezpelur gaiteroak  
**2 Lote 1**  
ferminmusic.com

**Txapela Buruan**  
**3 KAMISETA**  
2 Lote  
txapela buruan  
www.txapela-buruan.com

**Pirritx, Porrotx eta Mari Motots**  
Mari Motots DVDa  
Piratax CDA  
Piratax posterra  
3 pin  
**4 Lote 1**  
katxiporrota.com

**Izurdea plisti-plasta**  
**MAHAI JOLASA**  
Lote 1  
www.urtemisa.org

**KAMISETA**  
2 Lote  
www.ondotapunto.com

**ttipi saskia** **TTIPI SASKIA**ren **ZOZKETAN**  
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra

**2 sarrera**

**AQUARIUM**  
DONOSTIA  
943 44 00 00  
www.aquarium.com

Zozketan parte hartzeko epea: urtarraren 28ra, irabazteko saskia zozketaren sekundarioan argitaratuko dugu. Mazarolen kostua 1.20€ (BEZ gabe). Zure deskontu ttipi saskiarekin batuz gero ere aukeratu dezakezu zure saskian parte hartzeko. Zuzentzen edo iturritzeko helburuak ditu. Zozketaren helburua da 948 63 54 58.





• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

[www.betikopvc.com](http://www.betikopvc.com)

[betikopvc@terra.es](mailto:betikopvc@terra.es)

Ordoki industrialdea z/g - Tel.: 948 453 259 - Faxe: 948 453 423 - 31713 ARIZKUN (Nafarroa)